DATORRENA

Zertarako bozkatu 25ean?

GORKA ELEJABARRIETA > 3

BERTSOA HERNANIN: Matea Joxepa

Zubeldia, oraindaino liburuetan kabitu ez den bertsolaria > 12

GAUR8

2014ko maiatzaren 10a | VIII. urtea • 364. zbk.
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

HERRI BAT EZABATZEKO AHALEGINA

XIX. MENDEAN HASITAKO PALESTINARREN KANPORAKETA PROZESUA SALATUKO DUTE NAKBA EGUNEAN, HILAREN 15EAN, MILAKA LAGUNEK. SIONISTEK MENDEBALDEKO POTENTZIEN LAGUNTZA DUTE HERRI BAT EZABATZEKO AHALEGINEAN. IRUDIA ASTE HONETAN BERTAN DAMASKON HARTUTAKOA DA, BAINA 1948KOA DIRUDI. > 4 Youssef KARWASHAN | AFP

GAUR8
mila leiho zabalik

Arduraduna: Amagoia Mujika. **Erredakzioa:** Jose Angel Oria, Joxean Agirre, Xole Aramendi, Oihana Llorente, Amalur Artola, Maider Eizmendi. **Argitaratzailea:** Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.

Amaierarik ez duen krimena salatuko da Nakba egunean 04

Txinan langileak euren eskubideen alde greban 08

Matea Joxepa Zubeldia, liburuetan kabitu ez den bertsolaria 12

«Xaldun Kortin», Nafarroako ondareak emandako jolasak 16

Marrubiak, udaberriko fruta 19

e.lkarrizketa: Anjel Oiarbide 22

«Elevator Pitch»: sortutakoa saltzen ikasteko teknika 27

In Fraganti: Oscar De Marcos 28

SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Zertarako bozkatu 25ean?
08 **Ruben Sanchez:** Europar Batasun desberdin bat
10 **Eleno Alkain eta Saioa Aginako:** Estresaren zurrunbiloan
11 **Mikel Zubimendi:** Eztabaida ekonomikoa ez da ñabardura kontu bat
18 **Naiara Garzia:** Lehergaiak
20 **Beñat Gaztelumendi:** Gipuzkoa plazako ahate arreok
21 **Koldo Almandoz:** Eta 2017an zer?
25 **Antton Izagirre:** Diruak ez du aberririk
31 **Unai Gorrotxategi:** Giltzarrapoak behar direnean

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Zertarako bozkatu 25ean?

Zertarako bozkatu maiatzaren 25ean? Ez al da Europar Batasuna egun pairatzen dugun egoera latzaren arduradun nagusietako bat? Batzordearen eta Kontseiluaren aurrean Europako Parlamentuak, demokratikoki aukeratua den europar instituzio bakarra, ezer gutxi du esan eta erabakitzeko. Estatu eta multinazional boteretsuen klub pribatua bilakatu da Europar Batasuna, eta klub horretako kideen interes partikularren arabera zuzentzen dute Batasuna, herritarrei, herriei bizkarra emanez. Zertarako bozkatu orduan? Zer galdu zaigu eta, are gehiago, zer lor dezakegu horrelako instituzio batean? Hamarkada bat baino gehiago daramat Europako Parlamentuan ezker abertzalea ordezkatzen, eta urte horietako esperientzian oinarriturik uste dut Europako Parlamentua ere beharrezko borroka eremua dela Euskal Herriarentzat. Zergatik? Zertarako?

Gatazkaren konponbideari loturik, Europako Parlamentuan eta Europar Batasunean izugarrizko lana egin da eta, oraindik ere, izugarrizko lana dago egiteko. Euskal Herriak Europar Batasuneko kide diren bi estaturen menpe egoten jarraitzen du, eta, konponbidean aurrera egiten dugun heinean, Batasuna konponbide horren laguntzaile, bultzatzaile eta bermatzaile izatea lortu behar dugu. Konponbidearen aldeko iritzi korrontea zabaltzen jarraitu behar dugu, europar instituzioetako adar guztiak blaitu arte. Era berean, Estatu espainiarraren zein frantsesaren etengabeko deslegitimazioa jorratzen jarraitu beharra dago; iraganean, egun eta etorkizunean emandako eskubide urraketa oro salatzea ezinbestekoa da. 2006ko urtarrilean sortu zen konponbidearen aldeko Friendship taldea, Euskaltzaindiak noizbait euskal hiztegira gehitu beharko duen hitza, eta geroztik ugari dira konponbidearen alde lanean buru-belarri ibili diren europar diputatuak, ideologia eta herrialde oso ezberdinetakoak gainera. Irlandako prozesuan Batasunak jokaturiko rol positiboa oinarri, Euskal Herrian ere zeregin handia duela uste dute Europako Parlamentuko diputatu askok, gero eta gehiagok. 2006ko urrian Parlamentuak konponbidearen alde onarturiko adierazpena praktikan jartzeko ordua iritsi da eta horretarako EH Bilduk Bruselan herritarrek hautatutako ordezkari bat izatea ezinbestekoa da. Gure proposamenak eta ahotsa Europar Batasuneko eremu guztietara eraman beharra dago. Duda barik, datorren legealdia estaturik gabeko herrien legealdia izango da: Eskoziak, Kataluniak, Flandriak independentziarako bidean aurrerapausoak ematen jarraituko dute, erabakitzeko eskubideak zilegitasuna irabaziko du eta herrien erabakitzeko eskubideari ateak ixten dizkiotenak inoiz baino ageriago azalduko dira. Euskal Herriak prozesu horiek guztiak lagundu behar ditu, bere egin. Erabakitzeko aukera demokraziari lotuta dagoen bezala, erabakitzeko debekuak demokrazia eza adierazten duelako. Eta borroka horretan eraginkorrago izateko Europako Parlamentuan ordezkari bat izatea ezinbestekoa da.

Europar Batasuna bultzatzen ari den proiektu neoliberal anker honen aurrean alternatibak eraiki behar dira, ezkerretik, norberak bere herrian baina baita elkarrekin ere. Eta Euskal Herriko ezkerrak Europako ezkerrarekin batera egin behar du bide hori. Gure herri proiektua internazionalista ere badelako, urte luzeak daramatzagu beste Europa baten alde borrokan, eta bide horretan inoiz baino indartsuago jarraitu beharra dago. Europako ezkerraren debate eta ekimenetan parte hartu eta eragin behar dugu, kanpokoen ekarpenarekin gure herri proiektua hobetu eta indartzen dugulako. Beste indar progresisten esperientzia eta ekintzetatik asko dugu ikasteko, eta ekarpenak egiteko betebeharra ere badugu, urte luzez alternatibak eraikitzen dabilen herri eta mugimendua garelako. Europako Parlamentuan egoteak gure proiektua hobeto gauzatzea ahalbidetuko digu. Europako mugimendu feministak, ekologistak, ez militaristak, internazionalistak, ez inperialistak, sindikalak, independentistak, hau da, Europako indar progresistak, Euskal Herrira hurbildu behar ditugu, eta Euskal Herrikoak Europara eraman. Batera eraginkorragoak izango gara: bakoitza bere herrian baina baita Europan eta munduan ere.

> Europako indar progresistak Euskal Herrira hurbildu behar ditugu, eta Euskal Herrikoak Europara eraman. Batera eraginkorragoak izango gara: bakoitza bere herrian baina baita Europan eta munduan ere

Ezker abertzalea bere sorreratik ari da Europar Batasunean lanean, inurri lana egiten, aliantzak eraikitzen, estatuen deslegitimazioa jorratzen eta gure proiektu politikoa gauzatzen eta indartzen. Estatuak etengabe saiatu dira Europako Parlamentuan egiten dugun lana oztopatzen, denetarik egin digute: Parlamentuan sartzea debekatu, kontu korronteak itxi, jarraipen eta jazarpenak, kartzelatzeak. Oraindik ere badira lan hori egiteagatik kartzelan diren kideak. Espainia eta Frantzia dira gu Europako Parlamentuan ez egotea sutsuen desiratzen dutenak, gure ahotsak eta borrokak euren *statu quo*-a zalantzan eta arriskuan jartzen duelako. Josu Juaristi eta EH Bildu hautatu behar ditugu, iraganeko lanetik ikasiz etorkizun hobea eraikitzeko. •

{ txostena } **Jose Angel Oria**

PALESTINA

XIX. mendean hasitako palestinarren kanporaketa prozesua salatuko dute Nakba egunean

Hilaren 15ean Nakba ("hondamendia" arabieraz) ekarriko dute gogora milioika lagunek Palestinan bertan zein kanpoan. Euren etxeetatik ihes egitera behartu zituztela eta lurrak kendu zizkietela salatuko dute palestinarrek, hau da, euren lurraldetik kanporatu egin zituztela. Palestinarren egutegiko oroitzapenezko datarik garrantzitsuena da Nakba.

Nakba krimen ikaragarri batek eragindako sufrimendua da. Krimen horren ondorioak bizibizirik daude Ekialde Hurbileko etxe askotan. Oso ondo dokumentatutako krimena da, egileek beraiek beren oroitzapenetan onartu baitute zer egin zuten, baina oraindik ez zaio amaierarik eman, indar okupatzaileek palestinarrak kanporatzen jarraitzen baitute eta ez baitaukate jarrera aldatzeko asmorik. Lagun boteretsuak dituzte ondoan eta nahi duten guztia egiteko baimena dutelakoan daude. Palestinarren kanporaketa prozesu osoan izan duten moduan.

Israelgo Estatuaren sorrera ofizialarekin lotu izan da Nakba, hau da, 1948ko maiatzaren 15arekin. Horrela egiten du, esaterako, Wikipediak gaztelaniazko bertsioan (euskaraz oraindik egin gabeko artikulua da Nakbari buruzkoa). NBE Nazio Batuen Erakundeak hartutako erabaki baten eraginez, Palestinan bi estatu eratu behar ziren. Baina proposamenak ez zuen guztien oniritzia eta gerra bat hasi zen. Honela kontatzen du Wikipediak euskaraz: «NBEk 1947an Britainiarren Agindupeko lurraldea israeldarren eta palestinarren artean erdibitzeko deliberoa hartu ostean, arabiarrek erabakia onartzeari muzin egin zioten. Hortaz, Egipto, Siria, Jordania, Libano eta Irakeko armadek fundatu berri zen Israel Estatuari eraso egin zioten. Ondorioz, lurraldea Israel, Egipto eta Jordaniaren artean banatu zen». Krimenik ez da ageri bertsio horretan. Nazio Batuen kontuak, besterik ez.

Oso bestelakoa da gaia goitik behera aztertu duten adituek kontatzen dutena. Rawan al Damen palestinar emakumeak lekukotasun eta iritzi ugari bildu zituen "Al Nakba" izenburuko dokumentalean. 200 minutuko lan mardula, ikustea merezi duena, sariketa bat baino gehiagotan epaimahaikideek onartu duten moduan. 2008an egindakoa izan arren, baliorik galdu ez duen dokumentala.

Aldatu ez diren gauzak

Ramallah hirian jaiotako zuzendariak Nakba nondik nora sortu zen azaltzen du, nolabaiteko esku hartzea izan zuten eragileek izan zituzten arrazoiak eta planteamenduak esplikatzeaz gain. Agintarien asmoak eta joerak, lan egiteko eta erabakiak hartzeko erak, ia ez direla batere aldatu ondorioztatzen da. GAUR8 honen azaleko argazkian ageri den emakumearen eta orain ehun urte baino gehiago, 1910ean, Marj Bin Amer herritik ihes egin behar izan zuten 60.000 emakume, haur zein gizonen sufrimenduaren artean ere ia aldaketarik ez dagoen moduan.

1910eko kanporatze masibo bat ekarri dugu gogora, Nakba 1948 baino askoz ere lehenago hasita zegoela nabarmentzeko. Rawan al Damenek XVIII. mendeko pasadizo baten berri ematen digu: Napoleonek, 1799an, juduei proposatu zien beren espazioa eska zezaten «munduko herrien artean». Britainiarrei merkataritza ibilbideak aldarazteko asmoarekin, Otomandar Inperioaren mende zeuden Egipto eta Siriako probintziak bereganatu nahi zituen korsikarrak, baina Akre itsasertzeko hiria hartu ezinik geratu zen, makina bat sarraski egin ondoren. Gerran aurrera egiten ez zuela ikusita egin zuen aipatu proposamena Napoleonek, garaiko frantses hedabideetan oihartzun handia izango zuena. Gainontzean, ideia hilda zegoela zirudien.

Baina ez zen horrela gertatu. Frantsesen etsaiek, britainiarrek alegia, berreskuratuko zuten ideia handik hamarkada batzuetara. Napoleonek britainiarren interesak kaltetzea bazuen helburu, Londresko agintariek interes horiek babestu nahi zituzten 1840an. Garai hartan Egipto eta Siria batzeko proiektua zuten otomandarrek, britainiarrentzat oso kaltegarria izan zitekeena. Horregatik, garaiko Atzerri ministro britainiarrak Istanbulen zuten enbaxadoreari eskatu zion sultana konbentzitzeko, Palestina etorkin juduei zabaltzea baimen zezan. Garai hartan 3.000 judu inguru bizi ziren Palestina osoan.

Lehenengo kolonia juduak

Edmond de Rothschild baroiak testuinguru horretan hasi zituen Palestinara egindako bisitak. 14 milioi libera gastatu zituen eta 30 kolonia judu jarri zituen abian. Garrantzitsuena Rishon Le Zionekoa izan zen. 1885ean jarri zuten bertan gerora Israelgo bandera izango zena. Urte hartan bertan sortu zuen "sionismo" hitza Nathan Birnbaum austriarrak, eta, 1896an, Theodor Herzl kazetariak, "Estatu judua" izenburuko liburua argitaratu zuen, alemanez.

Garai hartan Palestinan bizi ziren juduak ez ziren sionistak, Europako ekialdetik iritsi berri zirenen ideiak baitziren horiek. Europan bertan ere jarraitzaile gutxi zituen kolonia juduak sortzea helburu zuen sionismoak, europar judu gehienek AEBetara joatearekin egiten baitzuten amets. "Lurrik ez duen herriarentzat, herririk ez duen lurra" leloak ez zuen arrakasta handirik juduen artean.

Gauzak nola zeuden ikusita, Herzlek bi errabino bidali zituen

1929an Jerusalemen egindako argazkia. Emakume palestinarren ordezkaritza batek bere haserrea azaldu zien britainiar agintariei, palestinarren aurkako errepresioa zela-eta. Kristauak dira kapela buruan dutenak (horietako bat da Matiel Moghannam idazle feminista), hiriko musulmanak aurpegia estalita dutenak eta nekazaritza eremuetako musulmanak ez zapirik ez kapelarik ez dutenak. GAUR8

Palestinara. Esaldi labur batekin esplikatu zioten egoera sionismoaren aitari: «Andregaia oso polita da, baina beste gizon batekin ezkonduta dago». Errabinoek adierazi nahi zuten Palestina ez zela herririk gabeko lurra, bertan milaka urte egin dituen herria duen herrialdea baizik.

Halere, sionistek beren asmoei eutsi zieten. Suitzako Basilea hirian egindako lehen kongresu sionistan Palestinan juduentzat aberria eratzeko programa onartu zuten. Aldi berean, *lobby* lanetan hasi ziren, garaiko potentzia nagusiak konbentzitzeko presio lanetan alegia. Estatu judua eratzeari beren sostengua emateko eskatzen zieten munduko potentziei. Sionisten mesederako, helburu horrek bat egiten zuen potentzia horien interesekin.

Mendebaldekoen interesak

Britainiarrek laguntza eskaini zuten, Suezko kanalaren ondoan europar herrialdeen lagun eta inguruko herrien etsai izango litzatekeen indarra sortzea izango litzatekeelako. Mendebaldeko indar berri horrek Europaren laguntza izango luke eta bizirik iraun ahal izateko inguruko estatuak ahulak izatea beharko zuen. Ideia horiexek ikusten dira gaur egungo analisietan ere. Libano eta Irak, esaterako, etnia eta erlijioaren araberako zatiketek ahulduta daude, eta begirale batek baino gehiagok dio horixe ari dela gertatzen gaurko Sirian ere. Geoestrategiaren izenean, herriak sakrifikatzen dira, XIX. mendean bezala.

Sionistek lur gehiago bereganatzen jarraitu zuten XX. mendearen hasieran. Chaim Weizman kimikari britainiarrak 20.000 hektarea erosi zituen hiru urtetan Marj Bin Amerren. Europan bizi ziren libanoarrak ziren jabeak, eta hainbat otomandar funtzionario aberastu zituen operazioak. Salerosketak eragin zuen 1910ean 60.000 palestinar inguru, nekazariak gehienak, bertatik kanporatzea. Gainera, Weizmanek enpresa bat sortu zuen Jaffan.

«Sionistek bazekiten Palestinan palestinarrak zeudela. Palestina Estatu judu bihurtzeko, palestinarrak bertatik alde egitera behartu behar zituztela onartu zuten», esplikatzen du Ilan Pappe historialari israeldarrak. Ideia horretatik abiatuta sortu zuten Hashomer izeneko milizia. "Defentsa" hitza erabiltzen zuten, azken hamarkadotan Libanon zein Palestinan zibilen sarraskiak egin dituen Israelgo Armadak egiten duen moduan: Tsahal Israelgo Defentsa Indarrak da armadaren izen ofiziala. Aldi berean, sionistak manifestazioak egiten hasi ziren, hebreera hizkuntza ofizial moduan onar zezaten. Estatu berriaren oinarri guztiak hartzen zituzten kontuan.

Garaiko arabiarrek eta palestinarrek ez zuten oraindik ikusten sionismoak eragin behar zien tragediaren neurria, Rawan al Damenek "Al Nakba" dokumentalean elkarrizketatutako adituek nabarmentzen dutenez. Najeeb Nassar botikari palestinarra eta Sathaj Baha'ai emaztea salbuespenetako bat izan ziren. "El-Carmel" aldizkaria argitaratu zuten Haifa hirian, herritarrak sionisten anbizioen inguruan jabe zitezen. «Arabiarren bihotzean sartutako pozoitutako daga da sionismoa», idatzi zuten.

Emakume politikaria, preso

Oso hedabide txikia bazen ere, otomandarrek kartzelan sartu zuten Nassar. Handik urte batzuetara, 1930eko hamarkadan, britainiarrek Sathaj Baha'ai emaztea ere espetxeratu zuten: kartzelara sartutako lehen emakume palestinar politikaria izan zen. Bi espetxeratze horien artean, Palestina Otomandar Inperioaren zati izatetik britainiarren esku egotera pasa zen, Lehen Mundu Gerraren eraginez.

Lehen Mundu Gerra amaitu baino lehen hasi ziren britainiar agintariak Palestinaren geroa diseinatzen. Sionistekin bat egin zuten. Horietako bat, Herbert Samuel, britainiar ministro izatera iritsiko zen. "Palestinaren geroa" dokumentuan, Samuelek esaten du otomandarrak Palestinatik bidali ondoren ez zela komeni bertan autonomia judu bat ezartzea, hobe zela britainiarrek aginteari eustea, juduen erakundeek lur gehiago erosteko aukera izan zezaten, kolonia berriak sortzeko. Britainiarrek lehentasuna emango liokete etorkin juduak Palestinara eramateari. «Europako hiruzpalau milioi judu mahomatarren artean ipiniko ditugu».

Sykes-Picot izeneko ezkutuko akordioa adostu zuten frantsesek eta britainiarrek: Estatu juduaren eraketari ateak zabaltzen zizkion dokumentua. Gainera, Balfourren deklarazioa iritsi zen, «Britainia Handiko Gobernuak 1917ko azaroaren 2an egin zuen adierazpen formala. Britainiarren Palestinako Mandatuan juduen etxea sortzeko prest agertu ziren britainiarrak. Dokumentua Arthur James Balfour Kanpo Harremanetarako Idazkariak sinatutako gutuna zen. Britainia Handiko juduen komunitateko buruzagietako bat zen Lionel Walter Rothschild baroiari igorri zion gutuna, Britainia Handiko eta Irlandako Federazio Sionistari eman ziezaion», euskarazko Wikipediak esplikatzen duenez.

Balfourren deklarazioa ekarri zuen gogora Khitam Saafin Palestinako Emakumeen Batzordeen Batasuneko (UPWC) presidenteak Euskal Herrian orain aste batzuk emakume palestinarren egoeraren inguruan eskaini zituen hitzaldietan. «Aro garaikideko emakumeen mugimendua Palestinaren okupazioaren eta kolonizazioaren aurkako borrokaren inguruan eman da, batez ere. XIX. mendearen bukaeran hasi zen garai hartan Otomandar Inperioaren mende zegoen palestinar lurraren okupazioa. Ordura arte, Palestinan musulmanak, kristauak eta juduak elkarrekin bizi ziren, arazo handirik gabe, etnia eta erlijioaren araberako bazterketa eta gatazkarik gabe. Guztiak arabiar sentitzen ziren, guztiek nahi zuten Otomandar Inperiotik askatzea», esplikatu zuen Saafinek.

Nortasunari eutsi

«Balfourren deklarazioari aurre egiteko iraultza sortu zenean, emakumeek ere esku hartu zu-

Israelgo Armadak 1998an hil zituen Hamaseko bi kide omentzeko apirilaren 30ean Ramallah hirian egindako ekitaldian esku hartu zuen neska bat. Orain itzuli dituzte ekintzaileon gorpuak okupatzaileek.
Abbas MOMANI | AFP

500

Sionistek 500 herri eta herrixka suntsitu zituzten 1948an, eta milioi bat palestinar beraien herriak eta etxeak uztera behartu zituzten. Gaur egun 12 milioi palestinar inguru bizi dira munduan. Erdia, gutxi gorabehera, Palestinan bertan (Israelen, Gazan, Zisjordanian eta Jerusalemen).

ten. Une horretan hasten da kolonizazioaren aurkako palestinar emakumearen borroka. 1929an idatzi zen emakume palestinarren lehen agiria. Kolonizazioaren eta Mandatuaren aurkako borroka planteatzen zuten, hezkuntza edo osasuna bezalako eskubideak exijitzeaz gain», erantsi zuen Saafinek.

Emakumeak era askotan esku hartu zuen borrokan, kasu batzuetan baita armak eskuetan hartuta ere. Baina agian zereginik garrantzitsuena palestinar gizartearen nortasunari eustea izan zen, kolonizatutako herri gehienetan gertatu izan den moduan. Gainera, beren herrietatik kanporatutakoei oinarrizko zerbitzuak (janaria, ura, osasuna, hezkuntza...) eskaintzea ere emakumeen gain geratu zen.

1917ko abenduaren 9an sartu ziren Allenby jeneral britainiarraren tropak Jerusalemera. Britainiarrekin batera juduen unitate militar bat sartu zen Hiri Santura, agintari berrien jarreraren adierazlerik garbiena. Orduan 50.000 judu eta 500.000 palestinar (kristauak zein musulmanak) bizi ziren Palestinan.

Sionisten presio taldeak

Sionisten presio taldeak AEBetan ere lanean ari ziren. Wilson presidenteak Estatu judua Palestinan eratzea posible ote zen galdetu zien aditu batzuei. Ezinezkoa zela erantzun zioten, proiektua aurrera ateratzen hasteko gutxienez 50.000 soldadu beharko liratekeelako. Proiektua bertan behera uztea gomendatu zuten egileek, populazioaren %90arentzat oso injustua zelako. Wilsonek ez zien jaramonik egin adituei. Sionisten *lobby* boteretsuak indar gehiago zuen.

Palestinan bertan lehen inteligentzia erakundea 1919an sortu zuten sionistek, palestinarren mobilizazioak eta asmoak zapuzteko hurrengo hamarkadetan sekulako garrantzia izango zuen zerbitzua, eta gaur egun ere oraindik baduena. Aldi berean, hezkuntza sistema propioa, zentral elektrikoak, indar armatuak, hebreeraren indartzea eta estatu berria sortzeko ezinbestekotzat jotzen ziren oinarriak

Israelgo Zochrot («gogoratu» hebreeraz) gobernuz kanpoko erakundeak iNakba aplikazioa aurkeztu du aste honetan, 1948an suntsitu zituzten herriak non dauden jakinarazteko eta bertako argazkiak eta informazioa eskaintzeko. Zochrot taldea Israelek Nabka onartzearen aldekoa da, eta, beraz, palestinar iheslariek beren herrira itzultzeko eskubidea defendatzen du. Agintariek, ordea, «top secret» zigilua jarrita dute Nakbarekin zerikusirik duten dokumentu gehienetan.
Thomas COEX | AFP

info+

- **«Al Nakba» dokumentalaren lehen zatia (azpituluak gaztelaniaz):** https://www.youtube.com/watch?v=2MTdXChyTIY#t=2433
- **«Al Nakba» dokumentalaren bigarren zatia (azpituluak gaztelaniaz):** https://www.youtube.com/watch?v=ZyqWNr-INvI#t=1465

lortu zituzten sionistek. 1920an Palestinako lehen gobernadore izendatu zuten Samuelek gauzak asko erraztu zizkien.

Palestinarrek kolonizazioaren aurkako manifestazio handiak egin bazituzten ere, garaiko palestinar gizarteko buruak, familia aberatsenetako kideak, ez zeuden etsaienak bezain ondo prestatuta. Ez zuten ulertzen zer gertatzen ari zen eta uste zuten posible zela alde batetik britainiarrekin ondo konpontzea, eta, bestetik, sionistei egurra ematea. Neurri batean, azken hamarkadotan jarrera bera agertu dute PAN Palestinako Aginte Nazionaleko buruek, baina ekuaziotik britainiarrak kendu eta estatubatuarrak jarrita. Horregatik ez dute aurrera egiten.

Samuel sionista britainiarra Palestinako gobernadore izendatu zutenetik Europako juduen etorrera bizkortu egin zen. Hamar urtetan, 50.000 izatetik 175.000 izatera pasa ziren. Kristauak 100.000 inguru ziren. Palestinarren protestak ere indartu egin ziren, eta errepresioa gogortu. 1933an egindako manifestazio batean britainiarrek manifestari asko erail zituzten, eta egurra emateko garaian nabarmendu zen Faraidy koronela goraipatu egin zuten britainiarrek. Injustizia injustiziaren gainean palestinarrentzat.

Borroka armatuaren porrota

Testuinguru horretan hasi zen kolonizazioaren aurkako borroka armatua. Al Qassam siriar klerikoak eman zion hasiera. Britainiarrek berehala suntsitu zituzten bere indarrak.

Hala ere, palestinarren matxinadarako gogoa indartu egin zen. Jaffa hirian greba egin zuten juduen etorreraren aurka. Errepresioak 195 hildako eragin zituen sei hilabeteko epean. Azken urteotako irudien tankerakoak izan ziren orduan ere: britainiarrek 200 etxe suntsitu zituzten zigor kolektibo moduan, egun israeldarrek egiten duten bezala. Herritarren mugimenduak oztopatzen dituzten kontrolak jarri zituzten errepidean, palestinarrak makurrarazten zituzten... Garai hartan hasi zen espioitza elektronikoa ere: palestinarren buruek telefonoz egindako dei guztiak entzuten zituzten sionistek. Kontzentrazio esparruak ere orduan sortu zituzten. Etxeak miatzen zituzten armen bila, baina juduek ez zuten horrelako arazorik.

1936an hasi eta 1939an bukatu zen Palestinako Iraultza. Palestinarrek 5.000 hildako eta 14.000 zauritu izan zituzten; britainiarrek, 100 soldadu hilda; eta juduek, 400. Tankerako proportzioak izaten dira azken urteotan ere. Palestinarrei tokatzen zaie beti gehien sufritzea.

Aldi berean, sionisten miliziek palestinarrak izutzeko eraso armatuekin jarraitzen zuten: 68 herritar hil zituzten 1938an.

Palestinako erresistentziarentzat oso hamarkada txarra izan zen. Belaunaldi borrokalari bat deseginda geratu zen, sionisten asmoen mesedetan. Gainera, milaka juduk britainiar Armadan esku hartu zuten Bigarren Mundu Gerran: tankeak, gerra hegazkinak eta armarik moder-

noenak erabiltzen ikasi zuten, eta hori oso garrantzitsua izango zen hurrengo urteetan.

Bestalde, sionistak ez zeuden batere gustura britainiarrek urtero iristen zen etorkin kopuruari ezarritako mugarekin. Hala, "Patrie" izeneko itsasontzi frantsesa Haifako portuan 1.800 etorkin barruan zituela zegoela, eraso egin zioten, agintari britainiarren jarrera aldatu nahian: sionisten miliziek 260 judu erail zituzten.

AEBetara begiratzea erabaki zuten, britainiarren gainbehera ikusita. Diru asko jarri zuten mahaiaren gainean AEBetako bi alderdi nagusien kanpainak ordaintzeko. Truman presidenteak eman zien nahi zutena: urtean 100.000 etorkin judu eramateko baimena.

Britainiarren aurkako 500 eraso

Britainiarrak lehenbailehen joan zitezen, sionistek eraso egin zieten: 500 atentatu zortzi urtetan. Irgun, Stern eta Palmach ageri dira sionisten talde armatuen artean. Menahem Begin talde horietako baten burua zen. Israelgo lehen ministro izatera iritsi zen eta 1978an Bakearen Nobel saria eman zioten.

Horiek horrela, AEBek Britainia Handia konbentzitu zuten «Palestinako arazoa» NBEren esku utz zezan. Gainera, Washingtonek Liberia, Filipinak eta Guatemala bezalako herrialdeetako ordezkariei presio egin zieten Israelgo Estatua eratzearen aldeko botoa eman zezaten.

Sionistak astero elkartzen ziren Israelgo Estatua sortu ondoren egin beharreko garbiketa etnikoa prestatzeko. Herrixka bakoitza aztertzen zuten nondik sartu eta zer eraman erabakitzeko. Arabiarrez mozorrotutako komandoak ere erabili zituzten, betiere palestinarrak izutzeko asmoarekin. «Arabiarrak kanporatzea uste baino errazagoa da», esaten zuten. Ez da harritzekoa: arma zahar bat zuen palestinar bakoitzeko, armarik modernoenak eta Aire Armadaren laguntza zuten sei judu zeuden.

Jaffa hiriko erresistentzia emakume batek zuzendu zuen 1948ko apirilean, Mouhiba Khorshidek. Uniforme militarra jantzita, berak zuzentzen zituen Tel Aviven ondoan kokatutako hiria defendatu nahi zuten indarrak. Baina partida hura irabazterik ez zuten, arbitroa sionisten aldekoa baitzen. Britainiarrek kanpaleku bat utzi ondoren, gauez sartzen ziren bertara sionistak. Erabat koordinatuta zeuden. Goizean iristen ziren inguruko herrixketako palestinarrak. Tiroka hartzen zituzten.

Horrela iritsi ziren Israelen «independentzia» eta oraindik amaitu ez den palestinarren hondamendia. 1948an idatzi zen kapituluan 500 herri eta herrixka suntsitu zituzten, eta milioi bat palestinar beraien herriak eta etxeak uztera behartu zituzten. Egun 12 milioi palestinar inguru bizi dira munduan; erdia, gutxi gorabehera, Palestinan (Israelen, Gazan, Zisjordanian eta Jerusalemen). Gainerakoak atzerrian bizi dira, gehienak herrialde arabiarretan (aberrigabe moduan). Txilen dago arabiar mundutik kanpoko komunitaterik handiena: 350.000 lagun.

KHITAM SAAFIN

PALESTINAR FEMINISTA

«Oraindik ezin da esan arabiar matxinadak bukatu direnik»

Palestinako Emakumeen Batzordeen Batasuneko (UPWC) presidentea da Khitam Saafin. 17 urte egin zituen irakasle lanetan lurralde okupatuetan. Betidanik egin du bat Palestinaren askapenaren aldeko borrokarekin. Ezkerretik eta behetik begiratzen dio munduari. Bere garaian Osloko akordioetatik irtendako negoziazioen aurkako jarrera izan zuen eta orain uste du denborak arrazoia eman diola, prozesu haren helburu bakarra «palestinarren erresistentzia ahultzea baitzen». Mundu osoko emakumeen arteko elkartasuna aldarrikatzen du.

Okupazioak ba al du eraginik palestinar emakumeen egoeran?
Hitzaldi hau iragartzeko egin duten propagandari begiratu besterik ez dago: emakume bat ageri da, hesi baten ondoan. Geure lurrean mugitzeko eskubiderik ere ez dugula adierazten du. Emakume horrek erietxera joan nahiko zuen, edo lanera, edo familiari bisita egitera... Baina zain egon behar, okupatzaileek atea zabaldu arte. Hebrongo neskek, esaterako, *checkpoint* batetik pasa behar dute eskolara joateko; Israelgo soldaduen presiopean daude egunero. Askok eskolara gehiago ez joatea erabakitzen dute etxekoen laguntzarik ez badute, eta hori ez da beti posible izaten.

Begirale batzuek uste dute arabiar herriek beren jarrera aldatzea beharko litzatekeela okupazioari amaiera eman ahal izateko. Tunisian 2011n hasita hedatu ziren mobilizazioek ilusiorik eragin al zuten palestinarren artean?
Arabiar munduko matxinadak aro berri baten hasiera izan ziren. Oso aldaketa ikusgarriak gertatu ziren berehala Tunisian zein Egipton. Herritarrek benetan sentitzen zituzten eskarien inguruan sortu ziren, benetako demokrazia eta independentzia eskatzen baitzituzten, diktadurekin eta ustelkeriarekin amaitzeko. Oraindik ezin da esan matxinadak bukatu direnik, oraindik aldaketak etor daitezke. Egipton hauteskundeak egin behar dituzte Anaia Musulmanen inguruko prozesuaren ondoren. Siriako gerra ez dakigu norantz doan. Pazientzia izan behar dugu. Palestinarentzat, oro har, arabiar munduko aldaketa guztiak positiboak izan dira, baina ez dakigu aldaketa horiek zein eragin izango duten gurean. Edonola ere, palestinarrok arabiar munduaren babesa sentitzen dugu, gure kontrako erasoaldirik gogorrenak izan direnean arabiarrak kalera irten baitira protesta egitera.

Europako ezkertiarren artean sekulako eztabaida sortu da matxinada horien inguruan. Siriako gerra dela-eta, batzuek diote Al Assad inperialismoaren aurkako barrikada dela, eta agintzen jarrai dezan lortu behar dela. Beste batzuek, berriz, ezin dela baztertu siriar herria, kontuan hartu behar direla bere eskariak eta bere demokrazia nahia.

Eztabaida bera sortu da Palestinan ere. Kontuan hartu behar da Ekialde Hurbilarekiko AEBen estrategia eskualde osoa etniaren eta erlijioaren araberako zati gero eta txikiagotan banatzea dela. Era horretan herrialde musulmanak ahuldu egin nahi dituzte. Libanon oso garbi ikusten da. Egia da ere demokrazia eta eskubideak eskatzen zituen matxinada egin zutela herritarrek, eta eskari horiek zilegi dira. Arazoa da Inperioak eskari horiek erabili dituela gatazka militarizatzeko; edonor hiltzeko prest dauden indar atzerritarrak sartu ditu Sirian. Oso eztabaida zaila da, egunero erailtzen baitituzte herritarrak. Siriarrek, justizia eta eskubide demokratikoak zein ekonomikoak exijitzeko borrokatzeaz gain, herrialdera iritsi diren atzerriko tropen aurka ere egin behar dute borroka. Irtenbiderik egokiena litzateke Sirian bertan bertako posizioen arteko negoziazioak egitea, atzerritarren esku hartzea saihestuko duen akordioa lortzeko.

TXINA

Langileak euren eskubideak aldarrikatzen eta greba deialdiak egiten hasi dira

EKONOMIA / maider.eizmendi@gaur8.info

Ez da ohikoa izan Txinako langileen protesten berri izatea. Azken denboran, ordea, asko ugaritu dira. Orain hilabete eskas ia 60.000 langilek egin zuten planto Yue Yuen enpresaren atarian eta enpresariak euren eskaerak entzun beste erremediorik ez zuen izan. Euren protesta eredu eta akuilu izan da beste makina bat langilerentzat.

Pauso txiki bezain tinkoak emanez, Txinako langileak hasi dira planto egin eta lan eskubideak aldarrikatzen. Azken denboran greba protestarako bide gisa baliatzen hasi dira langileak eta enpresak eta agintariak larritu egin dira.

Walmart enpresak ez zuen orain artean inolako arazorik izaten bere dendetako bat itxi behar zuela iragartzen zuen bakoitzean. Changde hiriko egoitza itxi eta 143 langile kalean geratuko zirela jakinarazi zuenean, ordea, bestelako egoera batekin egin zuen topo. Langileek protesta egitea erabaki zuten, eta, dendaren sarrera oztopatzeaz gain, hainbat pankarta ere jarri zituzten. Mugimenduaren buruan jarri zen Huang Xingguo langilea, itxi asmo zuten dendako buruzagi sindikala. Huang Xingguok orain artean inork egin gabeko zerbait lortu zuen: enpresa langileei eman beharreko kalte-ordainak negoziatzera behartzea. Walmart enpresako langileak eta euren ordezkari sindikala, horrenbestez, eredu eta akuilu bilakatu dira bai beste enpresa batzuetako langileentzat bai orain arte apenas arrakastarik izan duen Txinako Sindikatuen Federazio Nazionalarentzat.

Era berean, halabeharrez, protesten eta greben ugaritzea gertutik ari dira zaintzen orain artean Txinan inolako oztoporik aurkitu gabe jardun duten multinazionalak, askori irabazietan zuzen-zuzenean eragiten die-eta egoerak. Hori da, besteak beste, Yue Yuen enpresa hornitzaile duten kirol etxe ezagun askoren kasua. 1969an Tsai familiak sortu zuen enpresa eta egun 423.000 lagunek egiten dute lan munduan barrena zabaldutako enpresa erraldoian. Iazko urtean 313,4 milioi oinetako pare ekoitzi zituzten eta 5.800 milioitako irabaziak izan zituzten. Marka ezagunek jarritako prezioek enpresaren mozkin-marjinak estutzen ditu eta erantzun gisa hainbat neurri hartu ditu; besteak beste, 2012 eta 2013 artean 37.000 langile kaleratzea, nahiz eta epe berdinean enpresaren produkzioa igo egin zen.

Mozkinak handitzea helburu

Apiril erdian, Yua Yuan enpresak Dongguan hirian duen egoitzako milaka eta milaka langilek greba abiatu zuten. Arrazoi nagusia enpresak pentsioak ordaintzeko egin beharreko ekarpena ez zuela osotasunean betetzen jakin zutela izan zen. Izan ere, langileek salatu zutenez, 480 dolarreko lansaria badute ere, enpresak 288 dolarreko soldata hartzen zien kontuan ekarpenak egiteko. Ondorioz, erretiroa hartzerakoan pentsio oso baxuak izatera kondenatuta zeuden langileak. Lanaldi amaigabeak ere salatu nahi izan zituzten grebarekin langileek.

Enpresari ez zitzaion azkenean langileekin eseri eta euren eskaerak entzutea beste erremediorik geratu, ordaindu beharrekoa ordainduko zuela promes egin arte. Yue Yuenek kaleratutako komunikatu batean azaldu zuenez, grebak iraun zuen bi asteetan enpresak 19,46 milioi euroko galerak izan zituen. «70eko hamarkadan enpresa ireki zenetik izandako protestarik handiena izan da; antolaketa lan handia eskatu du, baina azkenean sekulako arrakasta lortu dugu. Enpresak erretiroari dagozkion kuotak eta bestelako zorrak ordainduko ditu, bai hemendik aurrera, bai atzeraeraginez ere», azaldu du Zhang Zhiru langileei laguntza emateagatik atxilo eraman zuten ekintzaileak.

Zhang Zhiruren ustez, azkenaldiko protestek Txinako langileek euren eskubideen gaineko gero eta kontzientzia handiagoa dutela azaleratu dute. Era berean, batasunak indarra ematen diela ikusi dute langileek.

Borrokarako prest

Iritzi berekoa da Geoffrey Crothall China Labour Bolletin elkarteko komunikazio arduraduna: «Langile gehienek euren eskubideak ezagutzen dituzte, eta gero eta gehiago eskubideon alde borrokatzeko prest dira». Bere ustez, legeak ezartzen duenaz harago, langileak «justua dena» eskatzen hasi dira. Belaunaldi berriak dira, elkarte honen ustez, aldaketa eragiten ari direnak. Gazteen eraginagatik izan edo ez, aldaketa agerikoa da: iazko datuekin alderatuta, aurtengo lehen hiruhilekoan grebak hirukoiztu egin dira.

Hainbat langile, Yue Yuen enpresaren atarian.
Mark RALSTON | AFP

Protesta egiteak, ordea, arriskuak ere baditu, greba deialdi asko langile eta polizien arteko liskar larriekin amaitu dira eta. Protesta egiteagatik kartzelan urtebete eman duenik ere bada. Hori da, esaterako, Wu Guijunen kasua. Shenzhen altzari enpresako jabeak enpresa lekuz aldatzeko asmoa erakutsi zuen, baina langileei inolako kalte-ordainik emateko asmorik gabe. Langileak kalera irten ziren egoera salatzeko eta Guijun atxilotu eta espetxeratu egin zuten horregatik.

Aurrerantzean izango diren grebetan agintariek hartuko duten jarrera funtsezkoa izango da China Labour Bolletin elkarteko programa kudeatzailearen ustez: «Lan interesen eta enpresarien interesen artean oreka lortzea lagungarria izango da grebek eragiten dituzten kexei aurre hartzeko, eta horretan lan egin beharko dute agintariek».

Langileen eskubideen defentsan lan egiten duen China Labour Bolletin elkartearen esanetan, grebak hirukoiztu egin dira herrialdean 2014ko lehen hiruhilekoan

Multinazionalek prezioak murriztu dituzte eta enpresak langileen lan baldintzak estutzen ari dira etengabe irabazi tartea handitzeko helburuarekin

Europar Batasun desberdin bat

Ruben Sanchez

Europako Parlamenturako hauteskundeak datozela eta, hasi da kanpaina gurean ere. Indar politiko nagusiek Europar Batasunean eta bertako legebiltzarrean sinesteko gonbita luzatzen digute, eta hainbat koloretako hauteskunde-gazta ere eskaintzen digute.

Europar Batasunarekin kritikoen EH Bildu ageri da: «Europar Batasun desberdin bat. Beraz, ez dugu Europar Batasunaren eredua eraberritzea planteatzen, baizik eta prozesu eratzaile bat martxan jartzea». (EH Bai koalizioa, bere aldetik, ez da aurkeztu eta EH Bilduren tzat eskatu du botoa). EH Bildu koalizioa ideologia ezberdineko alderdiek –besteak beste Europar Batasunarekiko ikuspegian– osatzen duten neurrian, ulergarria da, denak ahalik eta gusturen egon daitezen, erdibideko proposamen bateratua egiteko ahalegina, azkenean, "EB desberdin bat" leloan laburbiltzen dena.

Gainera, egia da *realpolitik*-a ere hor dagoela, areago mapa ofizialetan ageri ez den herri bat mapa ofizialetan ageriko den estatu bihurtzea nahi duzunean. Alegia, proiektu independentista baten alde herritar ahalik eta gehien erakarri nahi/behar dituzunean, eta nazioarteko komunitatearen aurrean *realinteresting* txaketarekin agertu beharra duzuenean.

Alabaina, ezker abertzalearen jarrera historikoa herrien eta herritarren Europa baten aldekoa izan da. Eta galdera logikoa da: posible al da Europar Batasun hain desberdin bat lortzea? (Posible al da armadak bakezaleak izatea, edo Eliza katolikoa ez dogmatikoa, edo kapitalismoa sozialista?) Nik uste inork gutxik sinesten duela horrelakorik benetan. Aitor nezake "errealismo" aproposko pixka bat "euskal" trantsizioan. Baina esan egia: olibak ba al du barruan hezurrik? •

Eleno Alkain eta Saioa Aginako
Psikoterapeutak

Estresaren zurrunbiloan

Aste Santuko eta maiatzeko jaiegunak amaitu dira; plazererako tarteek, lasaitasunak, egun pausatuek irrist egin dute. Etenik gabeko egunek lekua hartu diete presarik gabeko eta zernahi egiteko egunei. Erlojuari etengabe begiratu beharreko egunek txanda hartu diete erlojurik gabeko egunei. Hamaika lekutan batera egoteko gaitasuna izan nahi dugu, gure burua arnasestuaren musika errepikakorra entzutera kondenatu dugu, gure bihotza esprint erritmoan etengabe taupatzen dugu. Ondorio horiek guztiek izena dute: estresa. Gurekin bizi den hitza, erritmoa, ondorioa. Zer da estresa? Zertarako behar da? Zer ondorio ditu?

Estresa animali guztiok bizirauteko dugun mekanismoa da: bat-bateko egoerei aurre egiteko, momentu larrietan erabiltzeko, ihes egiteko... erabiltzen dugu. Bihotz taupadak gehitzea, arnasa azkartzea, giharren tentsioa handitzea, estresak dituen eraginetako batzuk dira. Mekanismo horiek bizitzan aurrera egiteko beharrezkoak ditugu, baina egoerok motzak, iraupen gutxikoak eta une zehatzetan erabiltzekoak dira. Estresa denboran zehar luzatzen bada –orduak, egunak, hilabeteak, urteak–, gure organismorako kaltegarria izatera pasatzen da. Gaur egungo gizartean, gainera, estresa ez da bizirauteko bakarrik erabiltzen; eraikitako gizarte moderno honek estres batean bizitzera bultzatzen gaitu. Maila pertsonalean, familiarrean, sozialean eta laboralean estresaren eta bere ondorioen presentzia etengabea eta handia da.

Inguru familiarra, esate baterako, ingurumen kutunena da pertsona askorentzako; babes handia eskaini ohi du eta gure bizitzaren lehen esparru soziala izan ohi da. Horregatik, familia giroan tratu txarrak, senideen arteko iskanbilak, gurasoen maitasun eza eta abarreko gertaerak pairatzeak estresean bizitzera eramaten gaitu. Maila sozialean estimulu asko ditugu, eta tentsio handiko giroetan bizi gara: etengabeko soinuak, mila koloretako mezuak, telebista, irratia, telefono mugikorra, autoa, desberdintasun sozialak... Eraiki dugun gizartea azkar eta bizia da; erlojuari begira dabil eta atsedenerako tarte eskasak eskaintzen ditu. Askotan bizitzari eskaintzen diogun gozamen tartea zirrikitu txiki bat besterik ez da.

Egoera sozialarekin batera, gaur egun gure gizartearen kezka nagusietako bat lanarena da. Suizidio kopurua handitzearen arrazoietako bat gaur egungo krisi egoera da: langabezia, lanordu amaigabeak, soldata eskasak... estresaren elikagai dira. Askotan, baldintzak kezkagarriak izan arren, lan eskaintza kaskar bati ezin diogu muzin egin egoerak bultzatuta. Buruari buelta asko ematen dizkiogu, ezinegona nagusitzen da, koherentzia eta beharra elkarrekin mokoka hasten dira, nahiak eta ezinak aurrez aurre topo egiten dute. Antsietatea, depresioa, erra... estresak eragindako ondorio zuzenak dira, gure bizipozean, ilusioan eta kemenean ondorio larriak sortzen dituzten ondorioak, bai maila pertsonalean bai gizarte mailan.

Krisia desagertzea, familia ingurumen egokian bizitzea, egoera sozial txukuna izatea izango lirateke estresari aurre egiteko irtenbide egokienak. Beste era batera esanda: gaur egun mirari bat beharko genuke gizarteari estresaren zama gainetik kentzeko. Kontua da mirariak Lourdesen gertatzen omen direla, eta, itxura denez, Lourdesezko Ama Birjina despistatu xamar dabil azken bolada honetan.

Horiek horrela, bizitza erritmoa aldatzea gure esku dago. Gure bizitzan, sarritan, aldaketa txikienak ere ondorio handiak izaten ditu; samina, egonezina, tristura, poza, irria eta malkoak gure kolkoan gorde beharrean desio dugunarekin konpartitu, atera, astinduko bagenitu, sabeleko, bularreko edo eztarriko estutasunek karga gutxiago izango lukete. Paseo bat ematea, gustuko zaletasun bat izatea, eguneroko zurrunbilotik aldentzea... erritmo frenetikotik irten eta sosegua aurkitzeko lehen urratsak izan daitezke. Familia, lagunak, maitatzen gaituztenak, guretzako garrantzitsuak diren pertsonak, egoera zailetan aterpe izan daitezke. Tuareg batek esan omen zuen: «Basamortua zeharkatzerakoan ur tanta guztiak dira garrantzitsuak bizirauteko». •

durundia@gmail.com

Lanordu amaigabeak, soldata eskasak... estresaren elikagai dira. THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Eztabaida ekonomikoa ez da ñabardura kontu bat

Euskal Herriko ekonomia gainbehera kezkagarrian dagoela gauza jakina da. Eta horretan bat datoz, ñabardurak ñabardura, politikari, sindikalista eta enpresaburu andana. «Putzu sakona», «gizartearen ehunak apurka-apurka jaten dituen eritasun kronikoa», «politikaren porrotaren ebidentzia»... Guztiz justifikatutako balorazio ezkorrak ez dira falta. Eta herri bezala soluzio berriak entseatzeko ezina ere ikusten ari da, jendearen etsipena, dagoena eta datorrena fatalismoz onartzea beste erremediorik ez dagoen mamua.

Langabezia datuak oso latzak dira, lan merkatutik langabeziara edo erretirora igarotzen direnen eta lan merkatura sartzen direnen kopuruak alderatuta tartea gero eta zabalagoa da, euskal biztanleriaren piramidea alderantzikatzen ari da, industria ez da dinamizatzen, finantziaziorik ez dago; adierazle guztiek diote ezberdina den apustu baten alde egin behar dela. Herri ezberdin bat bagara, apustu ezberdin bat behar dugu, orain arteko politikekin ezin delako emaitza ezberdinik espero.

Ebidentzia guztien aurka, baina, politika berberetan tematzen direnak ez dira falta. Errezeta neoliberala erlijio bilakatu eta eztabaida ekonomikoa ñabardura txikien auzi batera mugatzea nahi dute. EAJko buru izatetik Repsol konpainiako bigarren izatera pasatzea, ezagutza publikoari eta mintzakidetza sozialari bizkar emanda Kutxabank espekulazio funtsen esku uztea edota zerga politika justuagoak kapitalen ihesa dakarrela esatea adibide argiak dira noraino dabiltzan lotsagabe erakusteko. Eta horri guztiari, egin daitekeen politika errealista bakarra aipatutakoa dela erantsiko diote; hori edo kaosa beste alternatibarik ez dagoela, pankarta atzean daudenek ez daukatela maila ekonomiaz erabakitzeko, eta abar.

> «Putzu sakona», «gizartearen ehunak apurka-apurka jaten dituen eritasun kronikoa», «politikaren porrota»... Balorazio ezkorrak ez dira falta. Ezta herri bezala soluzio berriak entseatzeko ezina ere

Behin hori esanda, baina, eragin gutxikoa eta ibilbide motzekoa da datuok labainkada alderdikoietarako erabiltzea. Urkulluren Gobernua langabezia errekorrak hausten ari den arren, aurkariaren higadura politiko hutsera mugatzea ez da aski. Jakina atera behar dela Kutxabankeko afera plaza publikora, protesta egin eta arduradun eta onuradunak seinalatuz. Besterik gabe, baina, ez da aski.

Euskal sindikatuen arteko ñabarduren eta elkarren artean dituzten ozpinduren gainetik, bistan da muga nabarmenak dituztela. Ekintzarako katalogoak –sarriegi erantzutera mugatua– nahi eta ezinaren lurralderaino garamatza askotan; alde batetik, aurreikusteko moduko ondorioak dakartzalako, eta, bestetik, txikira eta handira begira taxututako beste ekimen batzuen zerbitzura ez direlako ipintzen sindikatuak. Ekintza sindikalarenak bezala, instituzionalaren mugak ere begi bistakoak dira, eta hala aitortu behar da.

Berrikuntza ezinbestekoa da. Eta hori ezin da bulego sindikal edo politikoen esku utzi, ezta bat-batekotasun herritar mirakulutsu baten esku ere. Protestarekin batera, diskurtso alternatiboa eta indarrean dagoen politika ekonomikoaren eraginkortasuna zalantzan jartzen duen praxia behar dira. Eta Euskal Herrian horretarako badugu abiapuntu aski interesagarria. Ezkerreko indar politiko bat instituzioetan eta sindikatu borrokalariak. Aski ez, baina asko da hori. Eta berrikuntzari oratzeko helduleku polita da. Behetik gora erresistentzia eta autogestio alternatiborako ereduak indarrean jartzeko kultura politikoa badago, eta, goitik, erlijio neoliberalaren mandamenduak onartuko ez dituen bide berria urratzeko hitzarmenerako irekia den erantzun zehatz bat jorra daiteke. Ibarretxek ordezkatzen duen humanismo edo «ongizatearen euskal subiranismoarekin» bat egiteko arazorik izango ez luketen euskal sozialismoaren sektoreak erakartzeko anbizioa izan behar da, Confebaskek ordezkatzen ez dituen euskal enpresaburu txiki eta ertain pila, kooperatibismoa eta jakintza... trinkotzeko.

Hitzarmen berri bat behar da euskal eredu sozial, produktibo, fiskal eta finantzarioa taxutzeko. Hortik etorriko da Euskal Herrian dauden enpresa esperientzia, lan kultura eta erresistentziarako ahalmena bilduta, gauden lekutik merezi dugun lekura abiatzeko aukera. Ñabarduretan kateatzeke, maiuskulazko benetako politika baten inguruan herri hau berriz trinkotzeko, energia sozialak askatuz ekonomia berri bat eraikitzen joateko parada. •

herria

BERTSOA HERNANIN

Matea Joxepa Zubeldia, oraindaino liburuetan kabitu ez den bertsolaria

KULTURA / amagoia.mujika@gaur8.info

Txirritaren garaian bazen Hernanin beste bertsolari bat orain arte liburuetan kabitu ez dena eta ahozko memoriak ez duena mimoz gorde, bere etxekoenak salbu. Matea Joxepa Zubeldia Elizegi bertsolaria zen eta ahal zuenetan plazan aritzen zen. Estitxu Eizagirrek aurkeztu berri duen «Bertsoaren haria Hernanin» liburuko perla handienetakoa horixe.

Hernanin bada bertso sorta bat ezagun samarra. Baztangaren inguruko bertsoak dira, herriko gertaera ezagun baten kronika errimatu interesgarria. 1918ko apirilaren 1ean udalbatza garrantzitsu bat izan zen Hernaniko Udalean. Bertan ziren Benefizentzia eta Osasun Batzordea eta herritar talde zabala. Auzia garrantzitsua zen: Gobernadore Gorenak agindua emana zuen hurrengo eguneko hamarrak baino lehen Lasarteko baztangadun gaixoak –batzuk egoera oso txarrean, hiltzeko arrisku bizian– Hernaniko Benefizentzia Etxera ekar zitzaten. Herritarrak sutu egin ziren, beren osasuna eta Benefizentzia Etxeko egoiliarrena arriskuan jartzen zelako eta beldur zirelako herriko industriaren interesei ere eragingo ziela. Horregatik erabaki zuten kontra egitea, eta Gobernadorearekin Donostian mintzatzeko batzorde bat izendatu zuten.

Gobernadoreak ez zeukan hizketarako asmorik eta uko egin zion batzordea hartzeari berari. Hartara, protestazko telegramak igortzeari ekin zioten, agintari desberdinak helmuga. Hernaniarrek mehatxu larria ikusten zuten gobernadorearen erabakiaren atzean eta alternatibak jarri nahi zituzten mahai gainean. Ez zen gaixoekiko elkartasun falta, herritarren osasunaren gaineko kezka baizik. Baztanga gaitz larria eta oso hilkorra zen.

Bide diplomatikoek emaitzarik ez zutela ematen ikusita, herria kalera atera zen, bazekartzaten gaixoen bidea oztopatzera. Garaiko aktek jasotzen dutenez, «ez klase eta ez sexu, inolako diferentziarik gabe» hernaniarrek protesta jendetsua egin zuten, eta eskura zuten guztia erabili zuten bidea ixteko. Azkenean, gobernadoreak atzera egin behar izan zuen bere erabakiarekin eta Lasartetik gertuko barrakoi batzuetara eraman zituzten gaixoak.

Herriaren lorpena ospatzeko herri bazkaria antolatu zuten Ezkiaga pasealekuan. Bazkaria bukatuta, aulki bat mahai gainera igo, bertan eseri eta 24 bertso bota zituen Matea Joxepa Zubeldia Elizegik. Gertatutakoaren kronika ederra benetan. Baina, zein zen Matea Joxepa Zubeldia Elizegi?

Matea Joxepa Zubeldia Elizegi Hernaniko Ibarluze baserrikoa zen. GAUR8

Estitxu Eizagirre kazetariak duela egun gutxi aurkeztu du "Bertsoaren haria Hernanin" liburua. Perla asko biltzen dituen lana da, 1800etik 2013ra bitartean Hernanin bertsoak izan dituen ibilera asko eta oso desberdinak biltzen dituena. Baina perla horietan distiratsuenetakoa bera izan da: Matea Joxepa Zubeldia Elizegi.

«Baztangaren bertsoak badaudela Hernanin jakin samarra da, nahiz eta segur aski oso jende gutxik irakurri dituen. Baina egileari buruz ezer gutxi zekien inork, eta ez zegoen jakin-minik ere. Horrela geratu gara emakumeak liburuetatik kanpo. Eta horrela hasi ginen gure artean pentsatzen gauza ederra litzatekeela Matea Joxeparen berri jasotzea», hasi da kontatzen Estitxu Eizagirre.

Liburu argitaratu berrian Hernaniko eta Hernani inguruko bertsolari guztiek daukate beren orrialdea, beren biografia, baldin eta horretarako datu adina baldin badago behintzat. «Emakumeek beren orrialdea izatea nahi nuen, gaur egunekora iritsi aurretik. Izan ere, erreferentziak asko daude; 'amonak pasatu zidan zaletasuna', 'halako auzotan bazen leihotik bertsotan egiten zuen emakume gazte bat'... baina zehaztasunik gabe. Eta horrela hasi ginen, herrian zubeldiatarrak nortzuk ziren ikusi eta Matea Joxeparen berri gehiago jakin nahian», segitu du.

Eta gauzak nola diren, ondo-ondoan topatu zuen Eizagirrek Matea Joxeparen ondorengoa. «Nire lankide Arantzazu Ruiz, hain juxtu liburuaren azala diseinatu duena, Matea Joxeparen ondorengoa da. A ze poza jakin nuenean! Bila ibili eta nahi gabe perla horrekin topo egin dut, eta poz horrekin geratzen naiz. Sekulakoa izan da. Matea Joxeparen ondorengoen ahotik jaso dut bere bizitzaren berri». Eta, azkenean, Matea Joxepa Zubeldia Elizegik bere tartea dauka "Bertsoaren haria Hernanin" liburuan.

Hernanitik Madrila, eta buelta

Matea Joxepa Zubeldia Elizegi (1867-1947) Hernaniko Ibarluze baserrian jaio zen. Baserriaren jabeak madrildarrak ziren eta orduan bazen ohitura etxeko alabak neskame bidaltzekoa baserriko jabeen etxera. Halaxe bidali zuten Madrila, artean neskatoa zela. Madrilen ezagutu zuen senarra, Manuel Ortiz Martinez burgostarra. Ezkondu eta Madrilen bertan bost seme-alaba izan zituzten. 1904an Hernanira bueltatu ziren eta bertan jaio ziren beste bi alaba. Zazpi seme-alaba eta 27 biloba izan zituen Matea Joxepak.

Senarra mehatzeetan lan egina zen eta oso gaixo zegoen. Ezin zuen lanik egin, asmak jota zegoelako, eta lanak zituen arnasa hartzeko ere.

Madrildik bueltatu zirenean Joxepak janari denda bat ireki zuen Hernaniko Kale Nagusian, eta hortik atera zuen familia guztia aurrera. «Seme-alaba eta guzti, berak bakarrik jarri eta atera zuen aurrera denda, eta jeneroa negoziatu, eta kontuak eraman eta... Esaten dutenez, gizona denda aurrean egoten zen aulki batean eserita, bere bizarrarekin. Hernanin bizardun ba-

BERTSO BERRIK ANDRE BATEK JARRIK ERNANIKO BERRIK OSO ARRIGARRIK

1946ko urtarrilaren 1eko familia argazkia. Matea Joxepa mahai buruan, alabez eta bilobez inguratuta. GAUR8

karra bera zen, eta horregatik gara gu barbasenekoak», kontatu du Mikel Ruizek, Joxeparen bilobak, "Bertsoaren haria Hernanin" liburuan.

Manuel Ortizek ez zuen euskaraz ikasi, baina etxean semealabek dena euskara egiten zuten. Senar-emazteek beren artean gazteleraz egiten zuten, baina gainontzeko elkarrizketa guztiak euskaraz izaten ziren haienean. «Semeetako bat, Joakin Ortiz (1896-1898 inguruan jaioa), lagunartean eta bertsotan aritzen zen. Madrilen jaioa zen baina gazteleraz ikaragarri gaizki egiten zuen. Parrandazalea eta mugitua zen, eta euskaraz kantatzeagatik atxilotu zuen guardia zibilak. '*¿Cómo te llamas?*' '*Joakin Ortis*' '*Y dónde has nacido*' '*En Madrid*'. Muturrekoa eman eta '*no nos tomes el pelo*' esan zioten».

Bilobek kontatutakotik igar daiteke Matea Joxepa emakume oso berezia zela. «Nik ezagutu nuen amona nola egoten zen idazten. Luma eta tinteroarekin idazten zuen. Poesiak, errezo asko eta bertsoak idazten zituen. Gure amak esaten zuen elizan kantatzen ziren kantu batzuen hitzak Joxeparenak zirela».

«Nik ezagutu nuen amona nola egoten zen idazten. Luma eta tinteroarekin idazten zuen. Poesiak, errezo asko eta bertsoak idazten zituen. Koadernoak eskuz egiten zituen»

Paper fabrikatik paper biribilkiak ekarri eta bere koadernoak egiten zituen. Bilobek gogoan dute nola papera neurrira moztu eta orriak egiten zituen. Eta orratzarekin eta listariarekin josiz, pasta bat jarri aurrean eta atzean eta koadernoak osatzen zituen. «Denbora librea ateratzen zuenean idazten zuen eta bere koadernoak erakusten zizkidan, oso txukun zituen! Idazteko erabiltzen zuen mahaia jasoa dugu», kontatu du aipatu liburuan Joxan Ruizek.

Kontatzen dute bazela bertsolari bat kaletik bertsoa botatzen ziona eta Matea Joxepak Kale Nagusiko bere balkoitik erantzuten omen zion. Baztangaren bertsoen berri ere ederki dakite bilobek; «gure amak esaten zuen 'zer lotsa guretzat, gure ama mahaira igo zenean jende guztiaren aurrean bertso haiek kantatzera'», ekarri dute gogora. Izan ere, alabak oso lotsatzen ziren ama bertsolaria zelako eta jendaurrean bertsotan aritzen zelako. Erabat gizonezkoen giroa zen eta gogorra egiten omen zitzaien ama bertan ikustea. «Eta alabek, ama hil zenean, koaderno denak erre zituzten. A zer galera!», penatu da Mikel Ruiz. Ba bai, galera ikaragarria, eta ez bakarrik sendiarentzat.

Estitxu Eizagirrek lortu du sikiera Matea Joxepa Zubeldia Elizegiren bizitza zatitxo bat sutatik ateratzea. «Zubeldiaren bertsoak sekulakoak iruditzen zaizkit. Hernanik dauzkan bertso epiko ederrak iruditzen zaizkit, Orioko balearenarenak bezala baina Hernanin. Kontakizun zehatza da, grazi handiarekin egina, perla bat. Asko esaten dute hernaniarren izaeraren inguruan. Eta, gainera, rolen inguruko eskema asko hausten dituzte. Gizonak eta emakumeak kontrako roletan agertzen dira; gizonak negoziazioan, telefonoa eskuan batera eta bestera deituaz, burokrazian eta bileratan... eta biharamunean gaixoen karabana bidaltzen dutenean emakumeak ateratzen dira bidera borroka egitera. Eta emakume kontzientzia ere oso presente

Apirillaren biyan
Ernaniko erriya
lau orduban egon zan
ikaragarriya
karrasi ta diarka
orduko larriya
eskerrak gendubela
batasun aundiya

Gobernadoriari
gure alkate jaunak
eskeñi omen zizkan
erosotasunak
zaindu ta sentatzeko
an bastangadunak
toki berezi baten
txit ederki danak

Alperrik izan ziran
arrazoi guziyak
etzizkan aintzat artu
Gobernadoriak
askotan oi bezela
beriak obiak
entzun gor egin ziyon
goi agintariak

Ordubantxe Ernanin
etzan lo jendia
kanpana ta tronkua
dantzatubak dia
tronko aundikin itxi
ziraden bidiak
barrika gurdi eta
asma al guziyak

Mikela ta Axentxi
pareja fuertia!
Ayek aurren zirala
fiñ giñan jendia
zarrak eta gaztiak
nexkatx ta gaztiak
andre txit aberatzak
baitaere pobriak

Lana egin genduban
kupira aundi gabe
senarrak utzirikan
bazkayrik gabe
ustuta petroleoz
ospitala iyurtzi
aguro erretzeko
kristal danak ausi

Orra bertso berriyak
andre batek jarri
eztiot esker txarrik
ematen iñori
orduko uniyua
beti da komeni
ala gerta dedilla
biba gu ta Ernani

Bertso sorta 24 alek osatzen dute. Hemen horietako batzuk

dago bertso sorta horretan», iritzi dio Eizagirrek.

Bertsoak plazaratzeko moduak ere asko esaten du Matea Joxeparen izaeraren inguruan. «Herri bazkari batean, mahai gainera igota. Oso gaizki ikusia zegoen garai hartan emakumeak plazan bertsotan egitea eta berak era horretan egin zuen. Izugarria iruditzen zait», segitu du.

Biloben kontakizunetik

Matea Joxeparen bilobek osatu dute amonaren biografia, ikusi dutenetik eta entzun dutenetik. «Polita da nola gogoratzen duten amona idatzi eta idatzi. Txirritak ez zituen bere bertsoak idazten, Matea Joxepa bere garaikoa zen eta idazten zituen. Ez zen edozein, oso jantzia eta ilustratua zen; idazteko eta irakurtzeko zaletasun handia zuen. Familian pena handia daukate haren koadernoak erre zituztelako».

Amorru pixka bat ematen du, baina, Eizagirreren hitzetan, batez ere «zer pentsatua» ematen du. «Horrelako zenbat istorio ote dauden. Zergatik gelditu dira emakume horiek liburuetatik kanpo? Patxi Bakallo bertsolariak bizilagun batekin egiten zuen bertsotan auzoan leihotik leihora, emakume gazte batekin. Patxi Bakalloren biografia eta bertsoak iritsi dira egunotara eta beste bertsolari horren berri ez dakigu ezer, ezta izena ere. Garaiko mentalitateak, egiten zutena ez baloratzeak, emakume izen asko eta asko utzi ditu bazterrean. Ez dakit axola falta ote den edo letxe txar handi samarra», kontatu du.

Horregatik dago hain pozik Eizagirre, Matea Joxeparen biografia jaso duelako. «Niretzat liburuko perlarik handiena izan da. Beste perla zenbait badaude, baina bazeuden han edo hemen bilduak, eta liburura ekarri ditut. Baina Matea Joxeparena deskubrimendu bat izan da. Pozik nago familia ere oso-oso pozik eta harro dagoelako Hernaniko historian tokia egin zaiolako». Zalantzarik gabe, ezagutzeko modukoa zelako, merezi zuen Matea Joxepa Zubeldia ezagutzera emateak.

Estitxu Eizagirre Hernaniko Kale Nagusian «Bertsoaren haria Hernanin» liburua eskuetan duela. Alboko orrian, Hernanin bertsoaren jiran dabiltzan hainbat.
Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

ESTITXU EIZAGIRRE

KAZETARIA

«Garaian-garaian bertsoa egunerokoaren kronika izan da»

Ahots berezia dauka «Bertsoaren haria Hernanin» liburuak, lehen pertsonan jasotako testigantzek osatzen dute-eta.
Bai. Nik ez dut liburu bat idatzi, kazetari lan luze bat egin dut. Hau ez da nire liburua, jende pila baten kontakizuna biltzen duen lana da. Bilduma bat bezala ikusten dut. Ez nuen nahi narratzaile batek kontatzea historia zer izan den, hori oso gauza serioa baita. Gainera, uste dut ez dela posible, ez dut uste historia hari narratzaile bakarrak konta dezakeenik, historiak ertz asko dituelako. Gertaera berdina eta garai berdina batek edo besteak oso modu desberdinean bizitzen du, eta hori oso garbi geratzen da liburuan. Liburuaren gakoetako bat hori da: garai bakoitza kontatzen da protagonisten ahotik eta bakoitzak bere ikuspegitik egiten du. Eta hortik aurrera irakurleak bere irakurketa egingo du.

Bertsoaren inguruko liburua da, baina soziologikoki oso interesgarria; zenbat pista ematen dituen garai bakoitzeko Hernaniri buruz...
Bai, zenbat pista eta batzuetan zein gutxi. Esaterako, gerrako bertsoekin harritu egin naiz; zenbat dauden, baina, era berean, zein gutxi. Iruditzen zait gerra batek bertso gehiago emango zituela, eta agian iragazkiren bat izan dela tartean eta ez direla guregana iritsi ziren guztiak. Baina, bai, orokorrean liburuak aukera ematen du garaian garaiko gaiak zeintzuk ziren ikusteko: gerra, sagardotegiak, intsumisio garaia, tranbia, abiadura handiko trena, etxebizitzen burbuila, parrandak, familia harremanak... Bertsoa oso lotuta dago jendartearekin. Garaian-garaian bertsoa egunerokoaren kronika izan da.

Kapitulu bakoitzaren sarreran kokapen historiko bat dago, oso lagungarria garai bakoitza hobeto ulertzeko.
Bai, egia esan asko laguntzen dute. Eta pasadizo eta datu bitxi asko ere badaude. Esaterako, urte batean ez ziren San Joan jaiak ospatu, Orbegozoko langileak greban zeudelako eta haiekiko elkartasunez. Eta hori bertsoetan kontatzen da. Bertsoek pasadizo historiko asko jasotzen dituzte.

Ezagutzen den lehen bertso desafioa hernaniar batek jokatu zuen.
Bai, Villabonako errebote plazan jokatu zen, 1801ean. Hernaniko Txabolategi eta Amezketako Zabala aritu ziren. Diotenez 4.000 entzule bildu ziren. Bi ordu eman omen zituzten bertsotan, entzuleen garrasi eta oihu artean, eta azkenean epaileek erabaki zuten biak berdin-berdin egon zirela; «batak adinbat egin behar degu bestea», kantatu zuen epaia Aizarnazabalgo sakristauak. Oso bitxia da berdinketa hori, eta denak konforme geratu ziren. Agian berreskuratu egin beharko

genuke berdinketaren aukera gaur egungo txapelketetan.

Euskara oso bizia sumatzen da liburuan, bai bertsotan eta bai elkarrizketetan. Beti esaten da badela Hernaniko bertsokera bat, estilo bat.
Horri buruz liburuan gehien teorizatzen duena Aitor Mendiluze da. Amurizak ikastaroa eman zuen 1981. urtean. Bi hilabetez astero bi orduko saioa egiten zuten udaletxeko goiko pisuan eta ehun lagunetik gora biltzen ziren. Ikastaroa eta gero helduen talde bat sortu zen Hernanin. Eta kontatzen dute Hernaniko estilo hori edo gustu hori oso lotuta dagoela helduak elkartu eta librean kantatzeari. Taldetxo horretako araua zen mahaiaren bueltan eseri eta zetorrenean kantatu, eta berriz zetorrenean berriz kantatu, gairik gabe. Hor hazitakoak dira Unai Agirre, Mendiluze, Irazu... Haiek esaten dute horrela aritzeak asko erakutsi diela librean egiten, ondokoari entzun eta ahal duzun bezala jotzen joaten, erantzuten. Txikian asko kantatzen zen, doinuekiko gustu batekin, umorez... Bai, egon da halako eskola bat bezala, gustu bat.

Azken Txapelketa Nagusian oso bide polita egin dute Hernaniko bertso eskolaren bueltan dabiltzanek.
Egia da, eta horrek nahiko buruhauste sortu dit liburuarekin [barreak]. Historia ez da inoiz bukatzen eta halakoak gertatzen dira. Nik sekulako antsia nuen argitaratzeko. Asmoa zen abenduan argitaratzea eta urria bueltan dena prest antzera neukan. Baina txapelketa hasi eta hernaniarrek aurrera eta aurrera egiten zutela ikusten nuen, herrian sekulako poza eta ilusioa zegoela, eta ni liburua ezin itxi. Ezin nuen argitaratu liburua finalaren biharamunetan txapelketaren inongo aipamenik egin gabe. Horregatik azken kapitulua 2013ko txapelketaren laburpen bat da.

Bertsolariak ez diren hernaniarrak ere aipatzen dira liburuan. Agustin Iturriaga (1778-1851) nabarmendu zenuen liburuaren aurkezpenean.
Nire ustez Hernaniko ikur izan beharko luke Iturriagak. Hernanik badauka pertsona bat oso gogoan izan beharko lukeena eta aldarrikatu beharko lukeena. Iturriagak defendatzen zuen eskola berritzailearen eredua benetan nabarmentzekoa da. Eta euskararen inguruan zeukan ikuskeran sekulako intuizioa erakutsi zuen. Euskarazko eskola materiala sortu zuen oso garbi zuelako haurrek etxeko ama hizkuntzan ikasi behar zutela; horrela hobeto ikasten zela eta beraz haurrek euskaraz ikasi behar zutela uste zuen. Errepublika garaian Diputazioak Gipuzkoa osorako materiala eskatu zion. Euskara biziberritzeko plan bat prestatzen ere ari zen, eta egiten zuen diagnostikoa gaur egungoaren antzekoa da; jendeak jakin bai, baina ez zuela erabiltzen, prestigiorik ez zitzaiola aitortzen... Liberala zen eta bere garairako ideia oso aurrerakoi eta oso onak zituen. Horrexegatik Errepublika erori zenean eskola itxi zioten, debekatu egin zioten irakasle lanetan jardutea... Sekulako errepresioa jasan zuen bere azalean. Era berean, Muñagorriren bertsoak bereak direla uste da. Bertso liberal horien egilea hernaniar bat izatea jakin beharrekoa da, noski. Eta lotura hori nahikoa izan da nik Iturriaga liburura ekartzeko. Benetan pertsonaia garrantzitsua iruditzen zait.

«Nire ustez denborak oraindik bere lekuan jarriko du Maialen Lujanbio, dagoena baino gorago. Uste dut denok konturatzen garela Maialen ez dela edozein bertsolari eta edozein txapeldun»

Txirrita eta Maialen Lujanbio. Bi txapeldun handi Hernanin.
Txirrita garai baten ikur izan zen, bertsolari izateko modu baten ikur. Oso ondo dokumentatzen zen bertsoak egiteko eta maisua zen bertsoak egiten, bertsoak jartzen. Enkarguz eskatzen zizkioten bertsoak jartzeko honi edo hari, eta horrek sekulako eragina zeukan gizartean. Txirritak bertsoak jartzea ez zen txantxetako kontua. Eta gertatzen zen Txirritak bertsoak jarritako hori bera beregana bueltatzea, kontrakoari bertsoak jartzeko eskatuz. Liburuan bada beste altxor bat, Txirritari Madrilgo aldizkari batek egindako elkarrizketa bat; Larrabetzu.org atarikoek topatu zuten eta haiena da meritu guztia. Baina bistan geratzen da Txirrita bizi zen garaian euskal prentsa beste toki batzuetara begira zegoela, doktrinara eta Elizako kontuetara, ez baitago Txirritari egindako elkarrizketarik. Bere heriotzaren berri eman zuten, baina bere bizitza nonbait ez zitzaien asko interesatu. Baina juxtu Matea Joxeparen kontrako kasua izan da. Hernaniarrok gauza asko jaso ditugu Txirritaren bueltan, etxean, eskolan, kalean... Ahozko memoria horrek oso bizirik mantendu du Txirrita, eta, Matea Joxepa, batere ez. Zer pentsa ematen du, ezta?
Eta, bestetik, Maialen Lujanbio. Nire ustez denborak oraindik bere lekuan jarriko du, dagoena baino gorago. Orain zaila da, distantzia behar da horretarako, baina uste dut denok konturatzen garela Maialen ez dela edozein bertsolari eta edozein txapeldun, arrastoa utzi du gauza askotan eta are handiagoa utziko du. Txirrita bezala, Maialen izugarri dokumentatzen da eta bide berezia egin du pentsamolde eta ikusketa autonomo eta propio bat lantzeko orduan. Bereziki zaindu du hori. Kantaeran ere berea egin du... Sortu du bertsotan egiteko modu bat, eskola bat...

Zure lana puzzlearen pieza bat dela diozu.
Herri guztiak animatuko nituzke bilketa lana egitera. Dagoeneko herri batzuek egina dute, baina falta direnak animatuko nituzke. Finean, Euskal Herriko puzzlean pieza bat baino ez da Hernaniko hau, eta bitxia da nola ikusten diren hainbat fenomeno pieza horren prismatik. Herri bakoitzak bere pieza idatzi beharko luke. Konbentzituta nago Bertsozale Elkarteak daukan guztia jarriko duela horretarako. Udal bakoitzak bere ondare kulturala bildu eta zabal dadin apustua egitea hil ala bizikoa da.

«XALDUN KORTIN»

Nafarroako ondareak emandako kantu, jolas eta abestien bilduma eraberritua

GIZARTEA / amalur.artola@gaur8.info

Euskararen transmisioan eman den etenak eta bizimoldeen aldaketak galbidean jarri ditu betiko jolas, kantu eta ipuinak. Horretaz jabetuta, Nafarroako ondarean arakatu eta haurrekin aritzeko baliabideak bildu eta hiru euskarritan (diskoa, bideoa eta liburua) argitaratu berri dituzte. Proiektuak «Xaldun Kortin» du izena.

Ehundik gora haurrek hartu dute parte bideoaren eta diskoaren grabaketan. Irudian, Bortzirietako haurrak.
XALDUN KORTIN | ILUSTRAZIOAK: Josune ITURZAETA

Arantzako (Nafarroa) jolas bat da Xaldun Kortin. Zerbaiten ale batzuk eskuan gorde, bi eskuak itxi eta, ukabilak gora eta behera ibiliz, zera esaten da: «Xaldun kortin, pittit kortin, zenbaten artin?». Jolaskideak zenbat ale gorde dituzun asmatzen badu, aleak harentzat. Bestela, zuretzat. Jolas hori eta Nafarroa Garaiko tradioziozko beste dozenaka kanta, ipuin eta jolas biltzen ditu "Xaldun Kortin" proiektuak. «Betikoak, tradiziozkoak, gure kantu, kontu eta jolasak dira», laburbildu du Maite Lakar egitasmoko kideak. Bera da, beste hainbatekin batera, proiektua mamiz hornitu duenetariko bat.

Funtsean, haurrekin aritzeko baliabide sorta bat da "Xaldun Kortin". Finean, hori baino askoz gehiago da: gizartean eman diren eraldaketen eta euskararen transmisioan izan den etenaren ondorioz galbidean zeuden Nafarroako tradiziozko ipuin, kantu eta jolasen herriz herriko bilketa lana egin, horiek sailkatu eta antzekotasun/ezberdintasunak ikusi, egokitu, eta, "Xaldun Kortin" izena emanda, haur zein helduek erabiltzeko moduan jarri dituzte, hiru euskarritan (bideoa, diskoa eta liburuxka).

Proiektuan buru-belarri sartuta batez ere azken bi urteak eman dituzten arren, haurrekin aritzeko baliabideak berreskuratzearen ideiak aspaldi ikusi zuen argia. Zehazki, hamarkada beteko lanaren fruituetariko bat da: «Orain hamalau urte hasi ginen Bortzirietako Mankomunitateko beka baten ondotik grabazioak egiten. Antzinako bizimodua ezagutzeko 50 elkarrizketatik gora egin genituen, horiek aztertu, transkribatu eta halako liburuxka bat atera zen». Herriz herri eta bekaz beka, azterketa etnografiko berbera garatu zuten beste zenbait udalerritan, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) ondare ez-materialarengatik interesatu eta, Euskokulturrekin elkarlanean, proiektuaren norabidea finkatu zuten arte. Orain bost urte batu zen proiektura Labrit Multimedia sortu berria eta, hala, hiru erakunde horien eta profesional zein boluntario gisa parte hartu duten dozenaka pertsonen lanaren emaitza da Nafarroako ondarearen zati garrantzitsu bat biltzen duen proiektu hau. Prozesua luzea bezain



Haurrekin aritzeko baliabide sorta zabala eskaintzen du proiektuak: lokartzeko kantuak, zotz egitekoak, laztantzekoak, eskuekin jolastekoak, min hartzean erabiltzekoak...

Nafarroako errealitatea aintzat hartuta, baliabideak erabiltzeko azalpenak gazteleraz eta frantsesez ere ematen dira, «erdaldun diren horiek ere nola erabili uler dezaten»

zain emankorra izan dela dio Lakarrek. Guztira, 1.500 adineko elkarrizketatu dituzte eta grabazioek, batez beste, bi ordu eta erdiko iraupena dute. Horietatik herena, 500 inguru, egin ditu Lakarrek eta bere hitzek agerian uzten dute berarentzat horietan biltzen dena altxorra dela: «Arrunt kontziente nintzen behar-beharrezkoa zela bilketa lana egitea. Ezagutu nuen grabatu eta handik gutira hil zen jendea eta, konturatzen zarenean pertsona bakoitzarekin zenbat galtzen den, hori biltzearen garrantziaz jabetzen zara. Une hartan, nik argi nuen egin behar zena zela grabatzea, eta gero ikusiko genuen materialetik zer irteten zen», azaldu du.

Hamarkada beteko bilketa lanaren ostean jasotako materialari forma emateko unea iritsi zenean sortu zen "Xaldun Kortin" proiektua: «Patri Arburuak aipatu zidan haurrekin zerbait egin beharra geneukala eta hala hasi ginen. Nafarroako gurasoen gehiengoa bikote mistoek [erdaldun-euskaldun] osatzen dute eta ikusten genuen haurrekin euskaraz aritzeko baliabideak eskaini behar zitzaizkiela». Lakarren iritziz, gizartearen eraldaketa eta euskararen transmisioan izan den etena da jolas, kantu eta ipuin horiek galdu izanaren arrazoia, «lehen familiak sutondoan biltzen zirelako, baina egun telebistak eta autoak beste eremu batzuetara garamatzate. Euskara debekatua egon izanak ere badu eragina, noski. Transmisioan eten ikaragarria egon da».

Hala, jolasteko eta kanturako ez ezik, egunerokotasunean haurrekin erabiltzeko baliabideak ere eskaintzen ditu liburuxka honek. Esate baterako, "bake ttitt" formula: «Bakeak egiteko, haserretu direnen behatz erakusleak elkar ukitu eta 'bake...ttitt!' esaten da». Lokartzeko kantuak, eskuekin eta behatzekin jolasteko formulak, trostan ibiltzekoak, taldean jolastekoak, laztantzekoak, zotz egitekoak, min hartzen denean erabiltzekoak... «apur bat denetik» biltzen du liburuxkak. Baita haur hiztegia eta baliabide bakoitza nola erabili azaltzen duen atala ere, euskaraz, gazteleraz eta frantsesez: «Euskara ikasten ari denak edo erdalduna denak kantua ikasi eta, azalpenarekin, ulertuko du zertarako den, nola erabili behar duen, zer egin behar duen eskuekin... Etxetik euskara bultzatzeko eta maitatzeko

Ikus-entzunezko atalean, Porrotx herririk herri ibiliko da, Nafarroako haurrek jolasak irakats diezazkioten. Irudian, pailazoak proiektuaren sustatzaile Maite Lakar eta Patri Arburua ditu ezker-eskuin. Behean, liburuxkako orrialde batzuk.
XALDUN KORTIN

aholkuak ere badaude, horretarako ez baita beharrezkoa euskaldun izatea».

Liburuxka batez ere guraso eta hezitzaileei zuzenduta dagoen bezala –aipagarriak, baita ere, Josune Iturzaetaren ilustrazio zainduak–, ikus-entzunezkoak eta diskoak 6 urte arteko haurrak ditu hartzaile nagusi. Bideoan, Porrotx pailazoak hartu du parte: herririk herri ibiliko da eta horietan topatzen dituen haurrek tokiko jolas eta kantuak irakatsiko dizkiote. Diskoak, bere aldetik, kantuak eta ipuinak biltzen ditu, tradiziotik hartuak baina eraberrituak: «Horiek familietan eta eskoletan txertatzea da asmoa, eta, horretarako, XXI. mendera egokitu ditugu, tradizioa modernizatuz», azaldu du Lakarrek. Horretarako, errezitatzekoak ziren zenbait jolas, "Ama, ekarzu papa" memoria jolasa esaterako, musikatu egin dituzte Nerea Urbizu eta Aitor Ortizek, eta grabaketan zazpi leku ezberdinetako eskolek hartu dute parte: Iruñea, Atarrabia, Leitzaldea, Larraun, Elizondo, Ribaforada eta Bortziriak. «Nafarroako errealitatea ikusita, ikusi genuen oso inportantea zela hizkuntza munduan hainbat esparru garrantzitsu ukitzea eta hartu genituen D eredu publikoa, ikastola pribatuak, A eredu publikoa, bertso eskolak, musika eskolak eta abesbatzak. Bakoitzak ematen dio bere ukitua, eta, guztiekin batera, lan aberatsa egin dugula uste dut».

Proiektuaren laugarren zutabea sortu duten webgunea da (*www.xaldunkortin.com)*. Itziar Luri Labrit Multimediako kidearen hitzetan, «gune elkarreragilea» izateko jaio da eta, apurka-apurka, edukiz hornitzen joateko asmoa dute, «baita, inork Nafarroako jolas, kantu edo ipuinen bat ezagutzen badu, bertara bere bideoa igotzeko aukera izanik ere».

Nafarroa Garaiko eskualde, esparru eta eredu ezberdinak ordezkatzen dituzten zazpi eskola aritu dira buru-belarri proiektuan. Irudian, Baztaneko parte hartzaileak. XALDUN KORTIN

Baliabideen ikastaroak

Baliabide hauek hainbat formatutan eskaintzeaz batera, horiek erabiltzeko ikastaro praktikoak ere antolatu dituzte. Hurrengo bi hitzorduak Lesakan (maiatzak 22, Harriondoa kultur etxea, 17.00-19.00) eta Beran (hilak 27, Muxiku haur eskola, 17.00-19.00) dira. "Xaldun Kortin" materiala ere banatuko da bertan. Proiektuak eskaintzen duena aintzat hartuta, ez da Nafarroako ondarea berreskuratu eta haurrekin euskaraz ez aritzeko aitzakiarik.

Lehergaiak

Naiara Garzia

Bizitzak ez du merezi ni izateko saiakera bakoitza atzeratu behar badut eta ohe batean hil». Rosenberg senar-emazteen esaldi hori ondoan izan dut urte askotan, baita maitasunez beteriko beraien argazki bat ere, McCarthyren sorgin-ehizaren jazarpenaren adibide garbienetako bat: Julius eta Ethel elkarri musu ematen azaltzen dira furgoi polizial baten barruan, 1953ko ekainaren 13an exekutatuak izan baino lehen.

Zeinen tristea den dena asmatua dagoen mundu batera sortzea, beste batzuek diseinatutako bizitza batera. «Helduen esklabotza tristeak beldurtzen ninduen. Ez zitzaien ezusterik gertatzen; hasperenka aldez aurretik diseinatutako existentzia bat jasaten zuten, inoiz erabakirik hartu gabe». De Beauvoir, beste behin.

Harresiak bota

Erromantikoek eta surrealistek ere honi buruz idatzi zuten. Azken hauek poesiaren ezezko gaitasuna azpimarratu zutenean, poemaren helburua ez dela adierazpen poetikoez beteriko museo baten antza hartzea, hau era pasibo batean miresteko, gure ohituren eta inertziaren harresiak botatzeko helburua duten lehergai mentalak martxan jartzea baizik.

Eta erromantikoek misterioaren beharra aldarrikatu zutenean ordurako jada oso mekanizatua zegoen mundu horretan. «Gogaitasunaren aurkako jainko hau da erromantikoa. Erromantikoek jainko estetiko bat behar dute, ez laguntzen eta babesten gaituen jainko bat, mundua bera misterioz inguratzen duena baizik».

Ez badugu ezer sortzen ez garelako, ezta geureak diren erabakiak hartzen ez baditugu ere. •

ENEEK

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Marrubiak, udaberriko fruta

Haritz MAYORA

Arrosen familiakoak diren marrubiek Europako lurralde epeletan dute jatorria. XVIII. mendean, Ameriketako Estatu Batuetatik iritsitako marrubi hibridoen eskutik, ekoizpen intentsiboagoa egiteari ekin zitzaion: marrubi basatiekin baino fruitu handiagoak lortzen ziren, bai, baina zapore gutxiagokoak ere baziren. Egun, ekoizpen intentsibotik eratorriak dira merkaturatzen diren marrubi gehienak. Espainia eta Ameriketako Estatu Batuak dira, beste batzuen artean, marrubi gehien ekoizten dituzten lurraldeak.

Bihotz itxurako fruitu gorriak dira marrubiak, eta txapel baten gisan, hostotxoak berdexkak dauzkate fruituaren goiko partean. Denok ezagutzen ditugu, ezta? Nola ez ba, kolore erakargarria izateaz gain, zapore aparta izaten dute eta! Gozoago edo azidoago izan daitezke, barietatearen arabera. Uste da 2.000 barietate ezberdin baino gehiago daudela. Basoan, ekainetik aurrera basa marrubitxoak aurki ditzakegu, txikiak eta izugarrizko zaporea daukatenak. Hauek dira benetako altxorrak! Marrubi komertzialen berezko garaia udaberri amaiera-uda (ekaina-iraila) bada ere, azken hamarkadetan marrubi-garaia artifizialki luzatzen ari da eta dagoeneko ia urte guztian aurki daitezke (baita negu gorrian ere). Badakigu sasoiz kanpo fruta bat ekoizteak zer suposatzen duen, horregatik, jan aurretik ur hotzetan ongi garbitzea komenigarria da. Badirudi sustantzia ez natural askotxoren aztarnak izaten dituztela (Estatu frantseseko Générations Futures gobernuz kanpoko erakundeak 2013an egindako ikerketaren arabera, merkatuan topatzen diren marrubien %95ek pestizida zantzuak dauzkate). Adi marrubi konbentzionalekin!

Mantenugaien atalean, nabarmentzekoak dira marrubiek dauzkaten C bitamina eta zuntz kopuruak. Azukre eta kaloriei dagokionez, nahiz eta zaporeak bestela pentsatzera eraman lezakeen, azukre eta kalorietan pobrea da fruitu hau. Beraz, marrubi eskukada ederra jatearekin ez da beldur izan behar!

Mantenugai edukiaren azterketa eta lurraren osasuna marrubi-ekoizpen ereduaren arabera egiteko, Kaliforniako Unibertsitate eta ikerkuntza zentro ezberdinetako ikertzaile aditu talde batek "Fruit and Soil Quality of Organic and Conventional Strawberry Agroecosystemes" ikerketa burutu du. Ondorioak argiak izan dira azterketa honetan ere: marrubi ekologikoek zapore handiagoa dute eta mantenugaietan aberatsagoak dira (C bitaminan adibidez). Marrubiak ekoizten diren lurrak ere mikroorganismoetan aberatsagoak dira, eta lurraren emankortasuna mantentzen da (karbono eta nitrogeno gehiago dago marrubi-baratze ekologikoetan).

Marrubi zaporedun prestatuak ere ugariak dira: jogurtak, izozkiak, txikleak, hortzetako pastak... Baina benetako marrubi zaporea al dute? Benetako marrubi zaporeaz gozatzeko, bakarrik jatea da gomendagarriena; gozotasun naturalaz eta benetako zaporeaz jabetzeko aukera aparta da. Bestela, ohikoa da marrubiak azukre, laranja zuku eta jogurtekin nahastea. Ederra da, bai, zapore nahasketa horiek egitea!

Marrubi ekologikoak etxeko baratzean landatzea ideia aproposa da. Hala, benetan jakingo dugu nola ekoitzi diren. Hona hemen gomendioak:

MARRUBI LANDAREAREN ZAINTZA

Europako basoetan jatorria duen landare belarkari bizikor hau oso ondo egokitzen da gure lurraldean hain ohikoak diren lurzoruetara: humusean aberatsak eta apur bat azidoak diren lurrak atsegin ditu (oso karetsuak direnetan ez da ondo moldatzen).

Gure baratzeko planifikazioan kontuan hartzeko moduko landarea da, maneiu aldetik oso erraza delako. Txandaketaren barruan, ongarri berdearen edo lekari baten atzetik joatea komeni zaio. Labore-elkarketetan, letxuga, espinaka, borraja, porrua eta baratxuria ditu gustukoen.

Toki berean hiru-lau urte pasako dituenez, lurra ondo prestatu beharra dago. Normalki, kabailoietan landatzen dira marrubiak, lur sakona eta harroa gustuko dutelako. Ongarriketari dagokienez, konposta edo simaur ondua erabiltzea gomendatzen da.

Landaketa "hiruzuloka" egingo dugu, 0,33 x 0,33 metroko landare-tartea erabilita (bost landare metro koadro bakoitzeko). Lur-estalkia jartzea komenigarria izaten da, alde batetik, konpetentzia izan daitezkeen belarrak kontrolpean mantentzeko, eta, bestetik, fruituak lurra ukitzerakoan sortu ahal diren usteldurak saihesteko. Pinu hostoak oso aproposak dira estalki gisa: azidoak dira (marrubientzat, aukeran) eta karakolak eta bareak kontrolatzen lagunduko digute.

Mantentze lanei dagokionez, fruituen usteldurak eta belarrak dira zaindu beharko ditugunak. Belarra kontrolpean mantentzea estalkien bitartez lortuko dugu. Usteldurak, edo, orokorrean, onddoen erasoak prebenitzeko, berriz, nahikoa da drainatze ona mantentzea eta ureztatzerakoan hostoak ez bustitzea. Hala ere, usteldura arazoak izan baditugu, uzta ondoren hosto guztiak moztu eta suntsitu beharko ditugu, hurrengo sasoian arazo berdina ez izateko.

Sabrina Pato
Josune Romo
Ekolapikoko kideak

Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Gipuzkoa plazako ahate arreok

Gipuzkoa plazako ahate arreok, ba al duzue aberririk goizero berritzen den ur putzu horretatik kanpo? Ba al duzue hizkuntzarik belarriak mintzen dizkiguten karrakez aparte? Euskaraz hitz egiten al duzue zuen artean? Negar egin al zenuten Xalbadorri txistu jo zitzaionean? Ikurrina zuen gainean dantzan ikusten duzuenean tentetzen al dira zuen luma bustiak? Ala, gaur egun modan dagoen bezala, munduko hiritarrak zarete, banderetan sinesten ez duzuenak? Zuen artean ere ba al daude euskaldunak, espainiar-euskaldunak, euskaldun-frantsesak, espainiarrak soilik edo frantsesak soilik? Ba al duzue diasporarik? Sabino Aranaren teoriak irakurri al zenituzten? Eta Xahorenak? Erabakitze eskubidea gauzatzearen alde al zaudete? Ze iritzi daukazue Kataluniaz? Eta Eskoziaz? Ekainaren 8an emango al diguzue eskurik, edo hegorik, edo hankatxorik, edo dena delakorik? Gure historiaren lekuko izan zareten ahate harrook, aurrera al goaz? Edo atzera? Ikasiko al dugu sekula bidean "v"-ak edo "b"-ak marrazten edo, alderantziz, beti bezala joango gara, bakoitza bere alfabetoko letra banderatzat hartuta?

Gipuzkoa plazako ahate arreok, ikusten al dituzue ilunabarretan zuen aldameneko banku zurietan esertzen diren maiteminduak? Ironikoa al da zuen moko okertuetako irribarrea? Bankuetan musuka ikusten dituzuenean, lehen musuka ibilitako horiekin gogoratzen al zarete? Irakurtzen al dituzue egurrean egindako seinaleak, "betirako", eta "bizitza osorako" eta halakoak, handik egun batzuetara udaletxeko langileek berriz zuriz pintatuko dituztenak –denborak ez du barkatzen–? Sinesten al duzue maitasun erromantikoan edo harreman libreak bizi dituzue zuen unibertso mugatu horretan? Ba al dago zuen artean kastitate botoa egin duen inor? Eta maitemintzen bazarete, poemak idazten pasatzen dituzue ilunabarrak edo, alderantziz, maitasuna sentitzeko ez, egiteko zerbait dela pentsatzen duzue? Eta egunkarietako *sucesos* orrialdeetara begiratu eta, zer pentsatzen duzue gutaz? Guri bezala lehertzen al zaizkizue zainak? Zuek, dena hain lasai, dena hain autonomo bizi duzuen ahate harrook, zergatik ez diguzue guk begiratzen dizuegun adinako harrokeriaz begiratzen?

Gipuzkoa plazako ahate arreok, irakurtzen al dituzue Marx, Kropotkin, Bakunin, Proudhon, Lenin, Troskiren teoriak? Ba al dago zuen artean komunistarik edo anarkistarik edo marxista-leninistarik edo anarko-sindikalistarik edo ateorik sikiera? Praktikatu al duzue desobedientzia zibilik sekula, turisten flashei ipurdia erakutsita edo ogi apurrei uko eginda? Ikasi al zenuten "Internazionala" euskaraz kantatzen edo oraindik ere lehenengo esaldiaren ondoren burua behera makurtzen duzue? Ibili al zineten Parisko 68an edo 68ko Parisen, ardo merkea edanez adokinen azpian hondartza bila? Joan al zineten Maiatzaren Leheneko manifestazioetara zuen langile eskubideak defendatzera? Urtero milaka turistaren begietatik pasatzen zaretenok, agertu al zineten egunkarietako lehenengo orrialdeetan? Entzun al zenituzten gazteak oihuka larunbat batez, Alde Zaharrean? Eta pilotakadak? Pilotakadak entzuten dituzuenean amorratzen al dira zuen hegoak? Ikusten al dituzue uso zuriak han goian? Ez al doaz zuriegi, goregi? Zuek, hankak lokatzetan behin baino gehiagotan sartzen dituzuen ahate harrook, sinesten al duzue Iraultzan?

Gipuzkoa plazako ahate arreok, ahate erreok, zergatik utzi zenioten hegan egiteari putzu xume baten eta ogi apur batzuen truke? Ez al duzue klase borrokan sinesten ogi apur guztiak zisne zuriek jaten dituztenean, turistek zuen hizkuntza zaharra mespretxatzen dutenean zisneen kantu eder unibertsal ustekoen aldamenean? Putzuak zerua islatzen duen egun eguzkitsu horietan libre izatea, libre izatea al da? •

Galderaz jositako Gipuzkoako plazako ahate arreak. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

{ koadernoa } **Koldo Almandoz**

Eta 2017an zer?

Europako kultur hiriburu izendapena eman gabe zegoenean Kordobak irabaztea nahi nuela esan nuen publikoki. Ez nuen Kordobaren mesedetan esan, Donostiaren alde baizik. Asmatzaile gisa etorkizunik ez dudala argi geratzeaz gain, inoiz Urrezko Danborra irabazteko aukera guztiak ere kareletik bota nituen.

Zergatik aurkeztu zuen Donostiak Europako kultur hiriburu izateko izendapena? «Hiriarentzat ona delako». Eta hori diotenean, batez ere «ekonomikoki» ona esan nahi dute. Inbertsioak eta turismoa. Inbertsioena, gainera, kuriosoa izaten da, amaieran, ia beti, inbertsio publikoa izaten delako. Orain arte ez dut inon ikusi ez bertoko ez nazioarteko enpresa, marka edota korporazio esanguratsurik DSS2016 egitasmoa taxuz babesten. Bestetik, turismoari dagokionez, turismo saturazioak turismoa bera uxatzen duela uste duen inozo horietakoa naiz.

Gisa honetako ekimenetara izendapena aurkeztearen arrazoia bestelakoa izaten da. Aurreko udal agintariek, trebezia handiz, epe luzeko proiektua martxan jarri eta ondorengo urteetarako hiritarrak liluratuko zituen itsasargia eraiki zuten. Proiektu honi esker, udal ekimen orok marka zehatz eta identifikagarria lortuko zuen. Estrategia soziopolitiko gisa ere ez zen batere ideia txarra. Hain gustuko zuten faroen figura aproposa erabiliaz, zetozen urteetan, hiritarren begirada haiek markatzen zuten norabidera begira jartzea lortzen zen, bide batez, beren faroak argitzen ez zuen oro itzalean utziz.

Alkate ohiak sekula espero ez zuena gertatu zen ordea. Hauteskundeak galdu eta, bere kapritxora zuzentzen zuen hiriaren makilarekin batera, DSS2016 proiektua «zuzentzeari» uko egin behar izan ziola. Eta, bat-batean, proiektuan sinetsi ez eta ordura arte kritiko zirenek jaka aldatu zuten eta barkuaren kapitain bihurtu ziren. Bestetik, DSS2016 egitasmoaren defendatzaile eta propagandista ziren hainbat komunikabide, luma eta donostiar *detolalavida* horiek, piraten moduan, barkua abordatzeari ekin zioten. Aurreko udalak proiektua zuzentzen jarritako arduradunek, ia beti, korrontearen alde egin zuten igeri. Oraingo udalak jarritakoek ur gaiztoagoak izan dituzte. Baina, zer espero zuten ba? Kantauri itsasoa Karibeko ur lasaiak ziren ustetan hartu al zuten kargua? Hori bai, aurrekoek eta oraingoek ez zuten inolako kexarik azaldu kobratutako soldatekin. Eta gero badira, bai lehen eta bai orain, beti dimititzen dabiltzanak baina sekula alde egiten ez dutenak.

Cordoba 2016ren alde egoteak ez du esan nahi Donostiaren kontra joatea, baizik eta DSS2016k ordezkatzen duen goitik beherako kultura modelo masibo eta mastekatuan ez sinestea, komunikabideek azal ikusgarriak lortzea helburu duten egitasmoak ez babestea, hizkuntza teoriko eta kontzeptu endogamikoak erabiltzen dituzten kultur «aditu» eta goi mailako funtzionarioek beren curriculumak betetzen ez laguntzea, "kultura" eta "turismo" hitzak elkarrekin datozela saltzen saiatzen direnei beren «produktua» ez erostea... Eta hau guztia esan ostean, proiektuan sartuta daudenei eta egongo direnei (aurretik hauteskundeak daude eta) ahalik eta lan txukuneta eginaz asma dezaten eta DSS2016 arrakastatsua izan dadin opa diet. Behin itsasoratuta, barkua portura eramatea komenigarriagoa baita urperatzen ikustea baino.

Cordoba 2016ren alde egoteak ez du esan nahi Donostiaren kontra joatea, baizik eta DSS2016k ordezkatzen duen goitik beherako kultura modelo masibo eta mastekatuan ez sinestea

Baina lerro hauekin, DSS2016 faro erraldoiaren argiaren itzalean geratzen diren eguneroko kultur ekimenen sustatzaile eta eragileei aipamena egin nahi nieke: Lakuako bulegoetatik hasi (bai bertan ere jende konpetentea badagoelako), kultur etxeetako langileetara, gaztetxeak, argitaletxeak, aretoak, tabernak, artistak, zineklubak, galeriak, herri guztietan dauden musika, dantza eta antzerki taldeak, eskolak, irakasleak, sareko aktibistak... ahaztu gabe. 2017a iristen denean, atzo eta gaur bezalaxe, horiek guztiak izango direlako «kultur hiriburua» egunero eraikitzen jarraituko dutenak. Ea orduan, logotiporik gabeko kamiseten garaian, zenbat politikari hurbiltzen zaizkien. •

e.rritarrak

«Guk sinesten dugun adina dago gure esku: etorkizuna»

ANGEL OIARBIDE

GURE ESKU DAGO EKIMENEKO BOZERAMAILEA

Horrexek ematen digu lan gehien euskaldunoi: gure esku dagoela sinesteak. Baina gauzak, pixkanaka, aldatuz doaz Angel Oiarbideren esanetan. Ekainaren 8a mugarria izango delakoan dago.

xole.aramendi@gaur8.info

Durangotik Iruñera bitarteko 123 kilometroak elkarri eskua emanda osatzea da erronka. Baikor da. «Pentsa gauzak nola aldatu diren: iaz ekimena aurkeztu genuenean ez ginela iritsiko zioten batzuek, eta, orain, erdi txantxetan, laburregi geratu garela diote», kontatu du Angel Oiarbidek.

Herriz herri egin dituen aurkezpenetan «poztasuna, esperantza, ilusioa, konplizitatea...» ikusi ditu herritarren begietan. «Sentitu egiten da, zabaldu egiten da», dio. Eta Angel bera ere, sentipen horretaz elikatzen da. Izan da esker onez hurbildu zaionik. «Adineko pertsonek zera diote: 'Ez nuen uste ilusioa berriz sortuko zitzaidanik'. Bizitzaren perspektiba hain zabala duenak hori esatea handia da. Gauzak ondo egiten ari gara», adierazi du, konbentzimendu osoz.

Ekainaren 8a mugarria bai, baina ez da helburua. Bidearen hasiera izango da. «Urte askoan egon gara Quebecera begira. 2014ko udan eta udazkenean munduko kamera piloa egongo dira Eskoziara eta Kataluniara begira. Testuinguru horretan sekulako aukera daukagu ekainaren 8an besoa altxatu eta 'gu ere hemen gaude', 'guk ere erabaki egin nahi dugu' esateko», dio.

Iaz egitasmoa aurkeztu zenutenean irudikatzen al zenuten gaur egungo egoera?

Oso gustura gaude. 2013ko ekainaren 8an aurkeztu genuenean sinatuko genuen honek hartu duen zabalkundea izatea. Zenbat jende inplikatu den! Irudikatu irudikatzen genuen, baina lan asko zegoen egiteko agertoki honetara iristeko. Lehenengo Idiazabalen bertan eta ondoren Goierrin egin genuen bidea. Euskal Herriko eragile mordo batekin hausnartu ondoren hasi ginen Gure Esku Dago dinamikarekin. Herriz herriko aurkezpenetan nire sentsazioa argia izan zen: «ze herdoilduta gauden, artikulazio guztiak ze gogortuta ditugun...». Horixe zen gure errealitatea.

Giza katea burujabetza prozesuetan erabilitako teknika da. Duela 25 urte herri baltikoetan erabili zen eta ondoren Kataluniako Diada egunean.

Bai, herrialde baltikoetan Katalunian bezala 400 kilometro ez, 800 egin zituzten. Gure ekintza guztiek herritarrak dituzte protagonista. Giza kateak ere bai, halaxe izango baita Euskal Herriaren etorkizunean ere.

Zer dago gure esku?

Guk sinesten dugun adina dago gure esku: etorkizuna. Nelson Mandelak zioen errealitatea hor dagoela, aldatzen den arte. Guk geuk barneratzen badugu gure herriaren etorkizuna erabakitzea gure esku dagoela, alferrik ibiliko dira kanpoko eragileak. Herritarrok sinesten badugu, horrela izango da.

Gure Esku Dago egitasmoa abertzaleen topagunea bakarrik izan ez dadin saiatu zarete. Agerpen publikoetan lortu da, herrietan ere bai?

Bai. Euskal abertzaleak daude, abertzaleak ez diren euskaldunak daude, eta nazionalista espainolak direnak ere bai. Mugimendu honetara gehitu diren pertsona asko alderdi politikoetako militantziatik kanpo zeuden herritarrak dira. Era honetako gaietan orain arte pausurik eman ez duten pertsonak. «Elkarrekin aritu gaitezke, zergatik jartzen ditugu hainbeste lubaki batzuen eta besteen artean?», diote. Izan ere, lubakiak ez dira benetakoak, artifizialak dira.

Nazioen Mundua plataformaren aurkezpen egunean, Idiazabalen, bi pertsona agertu ziren frontoian: bat EAJko zinegotzia eta bestea ezker abertzaleko ordezkaria. Biek irudikatzen dituzte sentsibilitate desberdinak eta biak dira pertsona errespetatuak herrian. Eskema guztiak hautsi ziren! Ordura arte eremu birjina zen eta gero ikusi da fruituak ematen dituela. Idiazabaldik Goierrira pausua eman genuenean 35 pertsona izan ziren aurkezpenean. Ametsik onenean ere ez genuen pentsatzen antzeko ezer ikusterik... Hain sinetsita geunden euskaldunon artean elkarlana ezinezkoa zela! Sinesmen horrek jarrera jakin bat dauka atzetik... Esadazu zein etorkizun geneukan. Gainera, gezurra zen! Nolatan iritsi gara horretara?

Gure Esku Dago aurrerapausoa da zentzu horretan?

Ekainaren 9ko egunkariak eskuan izatera itxaron gabe ja esan dezakegu dinamika arrakastatsua izan dela.

Sentipen hori transmititu al dizuete herritarrek?

Makineria martxan jartzeko beharrezkoa den gasolina, ilusioa, oso garesti egon da. Eta orain ikusten ari gara. Adin eta sentsibilitate desberdinetako pertsonen motibazioan ikusten da. «Bazen garaia!», behin eta berriz ari gara entzuten. Bizkaian, Ezkerraldean, gertatu den fenomenoa izugarria da. Bertakoek hala diote. Aurkezpenetara joan eta herritarrek eurek egiten dute komentarioa: 'Denetarik zagok! Zein ederra!'. Bitxia da, baina herri denetan ohartarazten dizute beren herria 'oso zaila' dela, eta, ostean, aurkezpen guztietan izaten da positiboa izan den sentsazioa.

Gainera, Euskal Herrian badaukagu eredua: kooperatibak. Nik ez dut ezagutzen kooperatiba bat bere osotasunean euskal abertzalez osatuta dagoenik. Kooperatiba guztietan dabil sentsibilitate ezberdinetako jendea eta elkarrekin hartzen dituzte enpresaren norabidearen gaineko erabakiak. Hori egunero gertatzen da. Kolektibitate handiago batean, zergatik ez?

Zeintzuk izan dira gakoak?

Orain arte, gelan ikasleek bezala, ordezkariak geneuzkan jendartean. Hasieran ardura arindu egiten digute ordezkariek, baina epe motz batean ahaztu egiten dituzu zure benetako gaitasunak zeintzuk diren. Ondoren, ez sinestera pasatzen zara, eta, azken fasean, menpeko bihurtzen zara. Eta hala geunden, zain, ea ezagutu ere egiten ez dugun lagun taldea bulego batean bildu eta guk merezi dugun zoriontasuna eta ilusioa ekartzen digu-

Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

ten. Garai berri bat mahai batean ea noiz diseinatzen diguten zain. Beti zain, gu gai izango ez bagina bezala. "Gure esku dago" ez da lelo hutsa, jarrera da. Etorkizuna bere eskutan dagoela sinesten duen herriak beste norabide bat hartzen du. Hori da gakoa, herritarrak aktibatzea.

Hemengo politikagintza piramide egituran oinarrituta dago. Guztiz ilogikoa den hori logikotzat hartu dugu eta herritarrek politikaz paso egiten dutela sinestera iritsi gara. Sustatzen al da ba parte hartzea? 'Zuek lasai, bozkatu lau urtean behin, eta guk pentsatuko dugu', esaten diete politikoek herritarrei.

Kazetariek zera esan izan didate: 'Hik badakit ba goiko botereek honen aurka egingo dutela, ezta?'. Ba al dakizu zenbateko astakeria daukagun barneratuta? Hain da larria... hori ez da demokrazia bateko eskema, diktadura batekoa baizik. Masa handi baten aurka jotzen duen goiko kupula. Pentsa, hori barneratuta daukan gizartea daukagu! Horregatik, Eskoziako adibidea ez da erreferenduma bakarrik, horrez gain azpian dauden balore demokratikoez kutsatzeko aukera daukagu.

Zein ikasbide dugu Katalunian eta Eskozian?

Katalunia adibidea da, baina iparra guretzat Eskozia da. Hobe esanda, Erresuma Batua. Eskozian gertatzen ari dena interesgarria da, baina agian are interesgarriagoa da Erresuma Batukoa. Izan ere, herriaren eta herritarrenganako bere jarrera errespetuzkoa da. Herritarren borondatea goiko alderaino iristen da, hemen, aldiz, ez; herritarron borondatea, piramide horretan, ez da iristen. Hori ez da demokrazia baten isla. Eta horra iristeko adibidea da Katalunia. Beren etorkizunaren gainean eragiteko zenbateko gaitasuna izan dezaketen erakutsi dute. Gure aurrean dugu posible dela dioen adibidea. Aitzakiarik ez dugu aurrerantzean.

«Guk geuk barneratzen badugu gure herriaren etorkizuna erabakitzea gure esku dagoela, alferrik ibiliko dira kanpoko eragileak»

Nazioen Munduarekin ekin zenioten bideari Idiazabalen.

Garai hartan, 2007. urtean, erabakitzeko eskubidea utopia zen. Quebeceko eta Groenlandiako prozesuek ez zuten gugan eragin. Baina Eskoziako adibidearekin ikusi genuen etxean bertan, Europa zaharrean, zela gertatzekoa: gu bezalako herri batek bere etorkizuna erabakiko zuen. 2007. urtean tsunami politikoa zetorrela ikusten genuen. Eta guk aukera geneukala tsunamia etorri aurretik, tsunamia sorrarazten duten ur azpiko korronte horiek jasotzeko. Euskal gizartea udan basoa egoten den bezala ikusten genuen, lehor-lehor eginda. Pospoloa botatzea nahikoa zen denak su hartzeko. Gai baginen ilusiozko txispa era egokian zabaltzeko, eta haizea –Eskozia...– aldeko bagenuen, Euskal Herrian ilusiozko sutea sor genezakeen. Hori zen "Gazta zati bat". Dokumentalak txispa pizten lagundu zuen. Garrantzitsuena jarrera zen.

Zer zioten eskoziarrek «Gazta zati bat» dokumentalaz?

«Mugimendu honetara gehitu diren pertsona asko alderdi politikoetako militantziatik kanpo zeuden herritarrak dira»

Dokumentalak sekulako arrakasta izan zuen. Ordura arte Madrilgo iturritik bakarrik jasotzen zuten Euskal Herriko informazioa. Beste iturri bat badagoela ikusteak, eurak eredu hartzen dituena gainera, eskemak hautsi zizkien. Asko eskertu zuten. Eskoziarrei gertatzen zaiena da auzia ez dutela grinarekin bizi. Erreferendumaren egunean bozkatuko dute eta kito. Gure dokumentalean ikusi zuten gazteriaren aktibismoa eta interesgarria iruditu zitzaien. Epailea erosita egon eta kanpoko zelaian jokatu arren jokatzeko gogoz gaude gu. Han, aldiz, jokalariak ez daude hain motibatuta. Katalunia, zentzu horretan, eredugarria da eskoziarrentzat.

Giza katearen aldarrikapena ez da independentzia, erabakitzeko eskubidea baizik.

2000n hasi ginenean, bitxia da, baina gure dekalogo osoa metafora bat zen. Bi pertsonak bide zati bat norabide berean egiten dutenean, bakoitzak bere bidea hartu aurreko azken bidegurutzea topagune bezala irudikatzen genuen. Erabakitzeko eskubidea topagunetzat jotzen genuen. Eta hura ez zen guretzat helburu politikoa, prepolitikoa baizik. Edozein norabide politiko hautatu ahal izateko nahitaezkoa zen lehendabizi agertoki demokratiko bat lortzea. Irudikapen horrekin hasi ginen eta Eskoziara egindako lehen bidaian konturatu ginen bide onetik gindoazela. Legebiltzarrean Alderdi Unionistako kide bati honakoa galdetu genion: 'Zer irudituko litzaizuke Gordon Brownek [Britainia Handiko garaiko lehen ministroa] ez balizueke eskoziarroi zuen etorkizuna erabakitzen utziko?'. Erantzuna argia izan zen: 'Ez genuke onartuko. Guk erabakitzeko eskubidea daukagu eta horregatik egiten dugu independentziaren aurka. Guretzat Eskoziaren etorkizuna hobeto bermatzen da Erresuma Batuaren barruan bertatik kanpo baino'. Han erabakitzeko eskubidea ez da abertzaleen aldarrikapena, printzipio demokratikoa da. Denek bat egiten dute topagune horretan. Noski, Erresuma Batuak bi mendetik gora daramatza demokraziaren norabidean. Hemen, aldiz, nahiz irudikatu hori topagunea dela, badakigu zailtasunak daudela, ez gara inozoak. Normala da, atzo hasi ginen demokraziaren norabidean... Baina ez dugu zalantzarik, norabide horretan pausuak ematen joan ahala hutsuneak txikituz joango dira, Katalunian bezala.

SNP alderdiko ordezkariek argi esan ziguten: 'Gure helburua ez da independentzia, eskoziarren ongizatea baizik'. Independentzia hori lortu ahal izateko tresna da. Haiek 600 orriko liburu zuria dute helburuak zehazteko. Guk zer nahi dugu? Sekulako lana daukagu: independentzia aldarrikatzetik mahai baten inguruan eseri eta zertan finkatzen den zehaztera igarotzea. Baina ez gaude puntu horretan. Edozein norabide, independentzia barne, aukeratu ahal izateko agertokia osatzeko fasean gaude orain.

Ziklo berri baten hasiera da?

Bai, eta hasierako uhina goraka altxatzen ez da hasi oraindik. Aurreko zikloa 50eko eta 60ko hamarkadetan hasi zen. Orduan sortu ziren kooperatibak, ikastolak, euskal kulturgintza... eta dinamika horrek sortu zuen olatuaren aparra gaur arte iritsi zaigu. Gure belaunaldia errentei esker bizi izan da. XXI. mende hasierako euskal herritarrok zer ari gara egiten gure lekukoa hemendik 50-60 urtera irits dadin?

Ekainaren 9an, zer? Bide orria zehaztuko duen batzorde baten sorrera iragarri duzue.

Gure Esku Dago egitasmoak urtebeteko iraungitze data du. Aurtengo udazkenean batzar handi bat egingo dugu. Bertan, parte hartu dugun guztiok atzera begiratu, zaporea hartu eta urtebetean zer egiteko gai izan garen sentitu ahal izango dugu. Indartuta, Euskal Herrian gizarte eraginkorra eraiki nahi baldin badugu aurrera begira zer pauso eman behar diren erabakiko dugu. Herrietako lantaldeetatik sortutako adituen batzordeak zehaztuko ditu non hartuko diren erabakiak, nola, Euskal Herrian eraginkorra izango den mugimendua martxan jartzeko.

Aldarrikapenetik gauzatzerako trantsizioa lortzeko sortu da Gure Esku Dago. Ekainaren 8ko giza katea mugarria izango da eta egun horretan egindako indarraren araberakoa izango da hortik aurrerakoak hartuko duen dimentsioa.

Diruak ez du aberririk

Antton Izagirre

Herri baten garapenean burujabetza eta erabakitzeko eskubidea nortasun ikurrak dira herri hori bertatik eta bertakoen interesen zerbitzura kudeatu nahi denean. Ibilbide horretan, bertako baliabide ekonomikoen kudeaketa funtsezkoa izan ohi da, eta egungo gizarte globalizatu honetan are eta funtsezkoagoa, kapitalismoak ezartzen dizkigun eredu zurrunen morroi eta esklabo izan nahi ez badugu.

Herri baten ekonomiak, euskal ekonomiak gure kasuan, berezkoak dituen ezaugarriak aintzat hartuta garatu beste erremediorik ez du; nola eta mundializazio prozesu horretan enpresa eta finantza entitate multinazional erraldoien atzaparretan jausi nahi ez dugun.

Oinarrizkoak diren lehen eta bigarren sektoreek, eta bereziki maila txiki eta ertaineko enpresa eta kooperatibek, ezinbestean, bertako finantza entitateekin elkarlana garatu beharra dute. Horretarako, herrialdeetako kutxak edota fusioren bidez sortutako Kutxabank tresna ezin hobeak izan zitezkeen, lekuko entitate finantzario gisa, etorkizuneko Euskal Bankua bilakatzeko. Aldiz, Europak eta Espainiako Gobernuak ezarritako ikuspegi uniformatzaileak eta PNV-PSOE-PPren kudeaketak berezko nortasun guztiak ezabatu dizkiote Kutxabanki, funtzio publiko eta soziala galzorian jarri dute eta espekulazio eta pribatizazio bidetik Europako beste edozein banku bilakatzeko arriskuan utzi dute.

Azkenaldian komunikabideetan ezagutzera eman dituzten iritziei kasu egiten badiegu, epe oso motzean, euskal erakundeek sortu zituzten kutxen etorkizunean eragiteko gaitasuna erabat gal dezakete, eta, atzera bueltarik gabe, herri ikuspegiaz ekonomia munduan nortasunez aritzeko aukera behin betiko galduko dugu. •

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

HAU ZER DA? ZERGATIK?

Aparteko mundu batekoa iruditu zaio zintzilik ikusi duen kanpai bitxi hori. Egia esan, zein desberdin ikusten den mundua ipurdia heldu baten sorbaldan pausatuta duzunean. Hurrena aitonari kanpai horren berri galdetu behar diola pentsatu du. Aitona da inguruan dituen helduetan hizketarako patxada handiena hartzen duena. Egiten dion galdera bakoitza eskertzen dio, ez da ernegatzen beti galdetu eta galdetu ibiltzen delako. Bere galderek ez dute nekatzen. Aldrebes, aitonari bere galdera bakoitza aukera bat iruditzen zaio, hau edo bestea kontatzeko. Eta dena kontatzen dio inoiz esango duen gauzarik garrantzitsuena balitz moduan. Nola kabitzen zaizkio aitonari barruan hainbeste erantzun?

Aitonak esango dio horiek zintzarriak edo joareak direla, animaliei jartzen zaizkienak nondik dabiltzan jakiteko, kontrolatzeko, ganaduzalearen mende egoteko. Esango dio ez dezala inoiz onartu inork halakorik jartzea berari.

Eta orain ez, baina inoren sorbaldan ez kabitzeko adina hazten denean aitonaren hitzekin akordatu eta ulertuko du zer esan nahi zion.

amagoia.mujika@gaur8.info

LEIOAKO UMORE AZOKA

Sortutakoa saltzen ikasteko «Elevator Pitch» teknika irakatsi diete profesionalei

GIZARTEA / maider.eizmendi@gaur8.info

Kultura eta emozioa dira, besteak beste, arte eszenikoetako konpainiek eskaintzen dutena. Hori bai, sortzeaz gain, euren sormenak produktu gisa saltzen jakitea ezinbesteko zaie konpainiei. Hala dio Mike Ribalta produktoreak. Aste honetan Leioan izan da profesionalei «Elevator Pitch» salmenta teknika entzutetsua irakasten.

Azken produktuaren kalitatea oinarri-oinarrizkoa da arrakasta izateko, baina horrekin bakarrik ez da arrakastarik lortzen. Hala azaldu du Mike Ribalta produktore, produktu-kudeatzaile eta Fira Tarregako kale antzerkiko jaialdiko Nazioarteko Hedapeneko buruak. Aste honetan Leioan izan da, Umore Azokaren baitako ekimen batean, konpainietako saltzaileei bide horretan baliabide eta tresnak emateko.

Ribaltak *Elevator Pitch* teknika entzutetsuaren abantailak nabarmendu ditu –igogailuak helmugara iritsi bitartean xahutzen duen denbora laburrera mugatzen den mezua da oinarria–: «Teknika hau eta antzeko beste batzuk diskurtsoaren antolaketan oinarritzen dira. Izan ere, denbora mugatua izateak hiztuna lehentasunak ezarri eta ideiak antolatzera behartzen du». Horregatik dio teknika hau oso lagungarria dela edozein gauza saltzeko, izan produktu bat, izan norberaren balioa... Kultur arloko produktu eta ekoizpenak saltzeko ere gero eta gehiago baliatzen direla horrelako baliabideak adierazi du, nahiz eta oraindik orain konpainiek alor honetan hutsunea dutela onartu: «Konpainiei kosta egiten zaigu onartzea azken batean saldu behar den produktu bat egiten dugula eta azokak saltzeko tokiak direla, nahiz eta saltzen ari garen hori emozioa, kultura... izan». Horregatik, konpainiak euren produktuak saltzeko prestatzea ezinbestekoa dela uste du, «are gehiago eskaintza eskaria baino handiagoa den garaiotan».

Mike Ribaltak eskaintzen dituen tailerretan, besteak beste, konpainia baten lana saldu nahi duen pertsonak telefono deiak nola egin behar dituen lantzen da. «Saltzaileak, besteak beste, programatzailea nekatzen ari dela konturatzeko enpatia izan behar du; programatzailearen arreta erakartzeko gai ez bada, ondoren ere izango duela bere produktua formatu desberdinetan erakutsi eta azaltzeko denbora ulertu behar du», dio.

Arrakastaren gakoa, Ribaltaren esanetan, «zehatza izatea eta diskurtsoa antolatzea» da, bai eta esan beharreko datu guztiak diskurtsoan txertatzea ere: «Ez da hitzik soberan egon behar, baina ideia garrantzitsurik ere ezin da falta», nabarmendu du. Bide horretan, parean jartzen denaren arreta erakartzeko gomendio gisa honakoa aipatu du: esaldi laburrak erabiltzea komenigarria da, mezua zuzenago iristeko.

«Emozioa duen diskurtsoa osatu behar da, azken batean produktua saldu egin behar da eta; zaila den arren, produktuarekin gehiegi lotzea ere ez da ona», aipatu du, ordea. «Sortzaileak azken batean bere 'umetxoa' sortzen du eta munduko hoberena dela uste du. Baina gerta daiteke 'umetxoa' saltzera zoazenean gustuko ez duela esaten dizun norbaitekin topo egitea, eta horretarako ere prest egon behar da», aitortu du.

Mota honetako tailerrek gero eta arrakasta handiagoa dutela aipatu du Ribaltak, besteak beste, arte eszenikoetako konpainiek «profesionalizazioaren bidea» hartzen dutelako gero eta gehiago, eta, ondorioz, «euren lanari puntu gehigarri bat emateko beharra» sentitzen dutelako. Lehiakorrak izatea oinarrizkoa da, baina hori baino gehiago «lehiatzen jakin» behar da. «Sektorea oso txikia denez, lehia baino, kolaborazioa sustatu behar da. Lehian muga batzuk daude eta hori ere azaltzen dut ikastaroetan», nabarmendu du, bizi ditugun egunotan elkarlana are eta garrantzitsuagoa dela gogora ekarrita: «Konpainiek beharrezkoa dugu elkarlana, batik bat merkatu bat elkarbanatzen dugula jakinda».

Saltzailea hezten saiatzen da bera, programatzaileak heztea ere behar-beharrezkoa dela uste du, ordea, Ribaltak: «Saltzailea abiatu da jada profesionalizazioaren bidetik, baina erosleak ere bide bera hartu beharko du baldin eta merkatua handitzea nahi bada».

Mike Ribalta, aste honetan Leioan eskaini duen tailerrean. | E

Oscar de Marcos, Lezaman Athletic taldeak dituen instalazioetan. Monica DEL VALLE| ARGAZKI PRESS

infraganti

OSCAR DE MARCOS

Arabako Errioxako hiriburua da Guardia. Ardoa eta mahastiak dira bertako ikur nagusiak. 1.500 biztanle pasatxo dituen Guardian, Oscar de Marcos futbolaria da herriko semerik kutunetakoa. Athleticeko jokalariak munduko futbol zelairik onenak ezagutu ditu, eta baloiaren atzetik korrika une gaziak zein gozoak bizi izan ditu.

Egun Lezaman Athleticek dituen instalazioetan igarotzen ditu orduak eta orduak Oscar De Marcosek, baina bere hastapenak Guardia jaioterrian bertan eman zituen. «Areto futbolean jokatzen hasi nintzen eta taldeko entrenatzailea nire aita zen. Berari kirol hau asko gustatzen zaio eta atsegin handiz bizi zuen anaia eta biok futbolean jokatzea. Ondoren, zazpiko futbolean jokatzen hasi eta Alavesen arreta bereganatu nuen», gogoratu du arabarrak.

Gasteiztarren urrezko aroa, Lehen Mailara igoera, Europan aritzeko txartela eskuratzea eta Liverpoolen aurka Dortmunden jokatutako UEFAko finala klubaren barrutik ezagutu zituen De Marcosek. Oroitzapen onak ekartzen dizkioten garaiak dira. «Oso gaztea nintzen, baina Alavesen historiako unerik onena izan zen eta nik kluba maitatzen ikasi nuen, kontutan hartu behar baita txikitatik Athleticeko zalea izan naizela».

Apurka, eliterako bidea osatzen duten eskailerak igo zituen, bidean une zailak igaroz. 2007ko udan, bosgarren metatartsoa bitan hautsi zuen, denboraldia ia erabat galduz. Hala ere, hurrengo denboraldiaren prestaketa lehen taldearekin egin zuen, «Hirugarren Mailan aritu gabe kasik. Etorkizuna nuen jokalaria nintzela zioten, baina ez nintzen lehen taldean geratu». Azkenik, sailkapenean arazo nabarmenak zituen Alavesek Manix Mandiola fitxatu zuen entrenatzaile gisa. Eibartarrak De Marcosen aldeko apustua egin zuen. «Beasainen 4-1 galdu genuen partida baten ostean, lehen taldera igo eta asko jokatzeko aukera eskaini zidan», gogoratu du.

Alavesek maila galdu arren, Athleticeko teknikariek De Marcos eta Igor Martinez begiz jo zituzten. Hala, 2009ko udan, Guardiakoaren ametsa egia bihurtu zen. Ezustean harrapatu zuen zuri-gorrien interesak. «Sopelako hondartzan nengoen nire ordezkariak Athleticen jokatuko nuela esan zidanean. Berehala herrira itzuli eta hurrengo egunean Huelvan denboraldi-aurrea egiten zegoen talderekin bat egin nuen», dio.

Historikoki, talde zuri-gorriak jokalari arabarren presentzia urria izan du, baina azken urteotan kopurua nabarmen igo da. Aitor Ocio, Gaizka Toquero, Igor Martinez, Iñigo Velez de Mendizabal, Unai Albizua edo De Marcos bera izan dira Athleticen elastikoa jantzi duten azken jokalari arabarrak. Umore eta normaltasunez hartzen du egoera: «Azken batean Euskal Herriko talderik garrantzitsuenean gaude eta arabarron ordezkaritza ere beharrezkoa da. Ez dezatela esan!».

Herritik hirira

Guardiatik Bilborako jauzia azkar eman zuen De Marcosek, hasieran hirira egokitzea zaila egin zitzaion arren. Dena arrotz eta mila aukera. «Herrian lasaitasun ikaragarria dago, denak elkar ezagutzen dugu eta oso egoera ezberdina da. Hasieran ez nekien hiritik mugitzen, leku txiki batetik nentorrenez autoarekin zoratu egiten nintzen. Adibidez, behin, Portugaleteko saltoki handi batera eraman ninduten eta mugikorra erostera ere bertara joan nintzen ondoren. Izan ere, ez nuen uste hainbeste aukera eta denda izango nituenik Bilbon bertan mugikor bat erosteko! Guardian, zer edo zer behar izanez gero, Gasteiz eta Logroño gertu geratzen dira, baina

«Areto futbolean jokatzen hasi nintzen eta taldeko entrenatzailea nire aita zen. Kirol hau asko gustatzen zaio eta atseginez bizi zuen anaia eta biok futbolean jokatzea»

Euskarari astindua ematen ari zaio. «Txikitan ikasi nuen, baina familian ez genuen hitz egiten. Idatzita edo telebistan dena ulertzen dut, baina prentsaurreko bat ematea zaila da»

Bilbon denetarik duzu. Erraztasun handiak daude elikagai edo arropak erosteko, jatetxeak aurkitzeko, aisialdia antolatzerako orduan... Lasaitasun gutxiago dago baina bizi aukera gehiago dituzu».

Askotariko zaletasunak ditu De Marcosek, horietako bat zinema. Denon ahotan dagoen "Ocho apellidos vascos" da ikusi duen azken filma. «Barre asko egin nuen. Norberaren inguruan barre egitea sanoa da, bertuteak eta gabeziak ditugu euskal herritarrok eta horien inguruan barre egiten jakin behar dugu». Egunerokotasunari hedabideei astindua emanez erreparatzen dio arabarrak eta sare sozialetan ere abila da: «Bertan dauden gauzak ikustea nahiago dut edukiak igotzea baino. Facebook eta Instagrameko kontuak ditut eta noizbehinka edukiren bat igotzen dut, baina nahiago dut bertan dagoena ikustea».

Dena den, ahal duen guztietan itzultzen da Biasterira, eta sorlekuaren enbaxadore lanak ere egiten ditu. Taldekideek ongi dakite. «Herri ederra da, kaleko bizitza oparoa duena. Nik 6 edo 7 urte nituenetatik kalean jokatu izan dut beti. Leku itxia da, bost ate dira eta bertatik ez da autorik pasatzen; bertan jolasten zoriontsu izan nintzen ni umetan. Ez zegoen autorik eta arazoren bat izatekotan, beti zegoen ezagutzen zenuen norbait».

Horregatik, taldekideei bertara asteburu-pasa joatea gomendatu izan die, «bereziki semealabak dituztenei». Bertan, De Marcosen esanetan –aurpegia alaitu eta begiak zabaldu egiten zaizkio sorterriari buruz hitz egitean–, «lasai egongo dira, primeran jaten da eta ardo zoragarria dago». Hori bai, bisita ondo balia dezaten, «joanetorrian denbora dezente pasatzen denez, Guardian bertan lo egitea da egokiena».

Egun, Bilbon egiten du bizitza. Bilboko erdigunean, errekatik gertu, bere bi txakurrekin paseatzeko baliatzen duen gunea dago. Eta Guardiatik Bilbora egindako aldaketa horretan, lagun zahar bat berreskuratzen ari da: euskara. Euskarari, izan ere, astindua ematen ari da azkenaldi honetan Oscar de Marcos: «Txikitan ikasi nuen, baina herrian ez da asko erabiltzen eta familian ez genuen elkarren artean hitz egiten». Berriro ere bidea egiten ari da orain: «Idatzita edo telebistan dena ulertzen dut. Prentsaurreko oso bat euskaraz ematea zaila da niretzat, baina irratirako adierazpen laburrak egitea posible ikusten dut».

De Marcos Agirretxerekin lehian, Anoetako urtarrileko derbian. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Europara bueltatzeko ilusioa

Lezaman eman dituen bost urteetan futbol jokalari batek bizi ditzakeen egoera guztiak ezagutu ditu De Marcosek, pertsonalki zein kolektiboki. «Oraindik gauza asko bizitzeko ditut, baina egia da bide oparoa egin dudala. Lehen urtea zaila izan zen, bazirudien primeran joango zela baina ez zen horrela izan, gogorra izan zen niretzat». Umiltasunez aztertzen du lehen urte hartan gertatutakoa. «Lehen Mailara moldatu beharra nuen eta ordezkoa izan nintzen. Jokalari batek aulkian egoten jakin behar du, ikasi eta indartsuago egiten baitzara bertan».

Marcelo Bielsa Athleticera heltzearekin batera De Marcosen egoera erabat aldatu zen, argentinarrarentzat ezinbesteko jokalaria bihurtu baitzen. Arabarrak gogoan ditu Rosarioko entrenatzailearen dohainak: «Oso perfekzionista da eta jokalarien onena ateratzen daki. Jokalari guztien errendimendurik altuena eskuratzen du».

Aurtengo denboraldian rol berria bizi du. Ez da hasierako hamaikakoan sartu ohi baina ia partida guztietan jokatzen du. «Aulkitik sartzen naizenean laguntzen saiatzen naiz. Nire papera asimilatzen nabil eta oso zoriontsu naiz; taldea oso ondo ari da eta ni eroso nago». Taldeak erregulartasun handia erakutsi du eta bi jardunaldiren faltan Txapeldunen Ligarako txartela eskuratu du.

«Aldagela ezagutzen du»

Ernesto Valverderen lanaz ere hitz egin du De Marcosek. «Futbol jokalaria izan zela igartzen da. Aldagela bat zer den ongi ezagutzen du eta futbolarien artean izaera eta behar ezberdinak daudela jakin badaki», dio. Primerako lana egin du gasteiztarrak eta datorren denboraldian ere, Bartzelonaren eskaintzari ezetz esan ondoren, zuri-gorriak zuzenduko ditu berriro, Europako talde handienen aurka gainera.

Vallecasen Rayoren aurka kasik 6.000 zaleren babesarekin jokatutako partidan, Oscar de Marcosek Athleticen goletako bat erdietsi zuen. Ondoren, egindako promesari eutsi zion, arrakasta Arabako Errioxako ardo batekin topa eginez ospatuz. Jokalari askorentzat, gaua Dani Martinez antzerkigilearen konpainian luzatu zen Madrilen. •

Beñat Zarrabeitia

SARE@N

EUROPA

Hauek dira arreta gehien erakarri duten gaiak:

> Nigeria

Joan den apirilaren 14an Nigeriako Chibok eskualdeko eskola batean berrehundik gora neskatila bahitu zituen Boko Haram milizia islamistak. Miliziaren buru Abubakar Shekauk astelehenean aldarrikatu zuen bahiketa, eta neskatoak «merkatuan» salduko zituela iragarri zuen. Dirudienez, armatuta zihoazen hainbat gizonezko Nigeriako ipar-ekialdeko Chibok eskualdeko eskola batean sartu ziren eta bertan ziren neskatilei lau kamioira igotzeko agindu zieten. Boko Haramek 200 neskatila baino gehiagoren bahiketa bere gain hartu eta egun batera, beste 11 gehiago bahitu zituen. Aste honetan jakin denez, AEBek, Frantziak, Txinak eta Erresuma Batuak bahitutako haurrak askatzeko lanetan lagunduko dute.

> Helena Costa

Helena Costa portugaldarrak Clermont-Foot Frantziako Bigarren Mailako taldea gidatuko du datorren sasoitik aurrera. Costa, horrenbestez, gizonezkoen futbol talde profesional batean arituko den lehen emakume entrenatzailea bihurtuko da. Iraneko emakumezko selekzioko entrenatzaile lanetan aritu da Costa azken hilabeteetan, eta, aurrez, Qatarko emakumeen selekzioko hautatzaile ere izan zen. Konfiantza ongi irabazita dauka portugaldarrak, eta, Clermont-Foot taldeak ohar baten bidez adierazi duenez, «garai berri bati ekiteko helburuarekin» fitxatu dute. Olivier Chavanon taldeko aholkulari teknikoaren esanetan, «ohorea» izango da eurentzat «aulkian emakume bat edukitzea».

> Bob Dylan

"The Drawn Blank Series" izenburupean Bob Dylanen artelanak ikusgai jarri ditu New Yorkeko galeria batek. Lehen aldia da Dylanek bere marrazkiak erakusten dituena. Denera 40 lan dira, 1989 eta 1992 artean musikariak egindako zirriborroak oinarri hartuta osatutakoak. «Bidaiatzen zuen bitartean egindako zirriborroak dira lanon oinarri. Gehienak duela hamabost bat urtekoak dira. Ondoren liburu batean bildu zituen, zuribeltzean», azaldu du Mickey Ross galeriaren nagusiak. Erakusketaren ideia duela zortzi urte sortu zen. «2007an Bob Dylanek berak proposatu zidan marrazkiak handitu eta koloreztatzea», kontatu du. Minbiziaren eta hiesaren aurkako borrokan erabiliko da erakusketarekin lortutako diruaren zati bat.

> Ebru Kiranci

Ebru Kiranci gay, lesbiana eta transexualen eskubideen alde aritzen da Turkian. Maria Binder zuzendari alemaniarrak bere istorioa pantailaratu du "Trans X Istanbul" dokumentalean. Kirancik transexualentzat harrera etxea ireki zuen Binderren amarekin, erizaina bera. «Bederatzi hilabetez emakume transexual baten hilketarekin bukatu zen istorioari jarraiki ibili ginen, baina pelikulan ez nuen biktimak agertzerik nahi, beren bizitzaren agintea hartu duten pertsonak baizik. Gaia ikaragarria da, ezin gogorragoa, baina umorez tratatu nahi izan dugu. Istanbuleko Jailaldian ikusleek ulertu zuten umore ukitu hori», adierazi du Binder berak. Turkiako zortzi hiritan erakutsiko da orain dokumentala.

KUTXATEKA.COM

SAN ISIDRO, BASERRITARREN EGUNA

Maiatzaren 15a, San Isidro eguna, baserritarren eguna. Argazkia egun horretakoa da, 1945ekoa, Donostiako Antigua auzoan ateratakoa. Egun horretan baserritarrek San Isidrori eskaintza egiteko ohitura zuten. Baina hori baino ohitura arraroagorik ere bazuten: lanik ez egitekoa. Urtean egun bakarretakoa izango zen segur aski baserrian jai antzekoa egiten zena. Jai bai, baina aurretik baserria pixka bat gobernatuta. **Pascual MARIN. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA.**

Unai Gorrotxategi

Giltzarrapoak behar direnean

Antibirusa hiltzera kondenatuta omen dago. Hori diote Symantec enpresaren arduradunek. Norton antibirusa garatzen duten enpresan argi dute. Ziber erasoek etengabeko bilakaera izan dute azken urteotan, eta, Symantec etxearen arabera, gaur egun antibirusak erasoen %45 geldiarazteko gai besterik ez dira. Hala ere, ezin da esan antibirusaren beharrik ez dagoenik. Windows sistemetan adibidez, gomendagarriak baino, beharrezkoak izaten dira.

Nork daki antibirusekin zer gertatuko den etorkizunean. Segurtasun enpresetan argi dagoen gauza bakarra da ezin direla geldirik geratu. Aste honetan adibidez, McAfee antibirusaren sortzaileak mezulari zerbitzu berri baten berri eman du. Telegram edo Whatsapp bezalako aplikazioen antzeko funtzioak izango lituzke. McAfee etxearen arabera, zerbitzu berri hau guztiz segurua da. Chadder zerbitzuaren bitartez idatzitako mezuak igorleek eta hartzaileek soilik irakur ditzakete, komunikazio segurua bermatuz.

Laster urtebete beteko da Edward Snowden AEBetako NSA Segurtasun Nazionalerako Agentziaren espioitza metodoak filtratzen hasi zenetik, eta orduz geroztik segurtasun informatikoa indartzen duten zerbitzu eta tresnak biderkatu egin dira. Alde batetik, hacktibista eta hacker komunitateek behar-beharrezkoa ikusi dutelako tresna eta zerbitzu berriak sortzea, Interneteko erabiltzaileon askatasunak bermatuta izan daitezen. Bestetik, kapitalak ere, NSArekin espioitza hitzarmen askotan kolaboratu duen arren, jendearen segurtasun nahia asetzeko ahaleginetan diru kopuru handiak inbertitu dituelako. Aurrera begira ere, gainera, kapitalak segurtasunean inbertitzen jarraitzeko asmoa duela dirudi.

Software libreaz hitz egiten dugunean, askotan nabarmentzen dugun ezaugarrietako bat da segurtasuna. Ez da seguruagoa garatzaileak azkarragoak direlako, softwarea bera edonork ikuskatu ahal duelako baizik. Erabiltzaile eta garatzaile komunitateen ikuskaritza eta hobekuntzei esker bilakatzen dira seguruagoak erabiltzen ditugun aplikazio, zerbitzu eta programak. Hacktibista eta hacker komunitateak ez dira software librea egiten duten bakarrak. Enpresa asko dira software librea garatuz edo software librearekin zerikusia duten zerbitzuak eskainiz dirua irabazten dutenak. Baina gaur egun erabiltzen diren zerbitzu fidagarrienak hacker komunitateek aurrera ateratakoak dira.

Snowden berak ere tresna eta zerbitzu hauek erabili zituen. Eskuartean zuen informazioaz jabetuta, Snowdenek bazekien ezin zituela egunero erabiltzen ditugun zerbitzuak erabili. Google, Microsoft, Yahoo, Apple... bezalako Interneteko zerbitzu emaile handienek espioitza hitzarmenak dituzte NSArekin. Bere ekintzak jarrai zitzaten saihesteko, ohikoak ez diren tresnak erabili zituen. Tails sistema eragileari esker, bere ordenagailuan ez zuen utzi berak egindako ekintzen arrastorik. USB bidez kargatzen den Linux banaketa horri esker, ordenagailuan egindako ekintza guztien arrastoak ordenagailua itzaltzearekin batera ezabatzen dira. Tor browser bezalako nabigatzaileekin ere, Interneten barrena anonimotasunez nabigatu ahal izan zuen. GPG bitartez bere filtrazioen fitxategiak zifratu ahal izan zituen. Posta erabiltzeko garaian ez nuen, noski, Gmail bezalako zerbitzurik erabili. Kontutan izan behar dugu Google berak aitortu duela bere zerbitzuaren bidez jaso eta bidaltzen ditugun mezuak irakurtzen dituela. Horren ordez, Lavabit zerbitzua erabili zuen. Auzia aireratu zenean Lavabit posta zerbitzua itxi behar izan zuten, FBI agentziarekin kolaboratzeko agindu judiziala jaso baitzuten.

Internet leku seguruago bat izan dadin zerbitzu eta tresna berriak hobetzen eta sortzen ari dira. Ekainaren 5erako, adibidez, Reset The Net ekimena aurkeztu dute. Snowdenen filtrazioen lehen urteurrenean pribatutasuna eta segurtasuna indartzeko ekintzak egitera deitu dute. Internet seguruago bat posible da eta behar-beharrezkoa dugu. •

Internet seguruago bat posible da eta behar-beharrezkoa dugu. GAUR8

3 BEGIRADA: osasuna /geltokiak / komunikazioa

9 771887 675001 40510